

uk

121. zenbakia / 2007 ekainak 19



getxo XXXI. europar jazzaldia
uztailak 4-8 julio 2007
XXXI festival de jazz de getxo

getxo azz

biotz alai plaza 21:30 2007 uztailak 4-8

asteazkena 4
lehiaketa: Thinktank (Holanda) **TRIO ROMANO-SCLAVIS-TEXIER**
osteguna 5
lehiaketa: Andrew's Quartet (Errusia) **PAOLO FRESU-URI CAINE**
ostirala 6
lehiaketa: Mr. Chacho (Espainia) **CHARLIE HADEN QUARTET WEST**
larunbata 7
lehiaketa: People Are Machines (Danimarka) **LEE KONITZ NONET**
igandea 8
Talde Lehiaketaren Irabazlea **CHUCHO VALDÉS QUINTET**

944 914 080

www.getxo.net

info@getxokultura.com

Getxo

BFA

EL CORREO

EUSKADI

EL CORREO

Getxo

bbk

BBK

micro libes

cn

AUVOL MOTOR

BBK

UK galeria > Eider Gaubeka



Gasteizko Arte Eskolan argazkigintza ikasi zuen Eider Gaubekak (Bilbo, 1982). Enkarguzko lanak egiten baditu ere (esaterako AUX aldizkarirako) bere proiektu pertsonalak garatzen gozatzen du gehien. Izugarri gustatzen zaio objektuak zein eskulturak sortu eta horiexek naturan txertatzea, izan ere, natura da Eiderren inspirazio iturririk handiena. Beste askoren artean Ouka Lele eta Cindy Sherman argazkilarien lanak gustatzen zaizkiola aitortu digu, horiek eta bere moduan *land art* deitzen dena jorratzen duten artistak.



«Beste plan batzuk egiten dituzun bitartean gertatzen zaizuna da bizitza» Woody Allen

Non zer

- GU GEU.
- IRUDIA. Herensugea Plentzian. Asier Mentxaka.
- LEHEN ETA ORAIN. Algortako tren geltokia.
- TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- ERRETRATUA. Natalia Monge.
- HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
- AGENDA.

SAKONEAN

- ALBUMA. Payadoreak, Asier Mentxaka.
- ARGAZKIA.
- BERBETAN. AEK-ko Mertxe Mujika, Unai Brea.
- FOTOGRAFIA. Portu Zaharra 1900.

KULTURA ETA AISIA

- ZINEMA. Oskar Fernandez. Euskadiko Filmategia.
- MUSIKA. Laia taldea. Diskoen erreseinak.
- LIBURUAK. Itxaro Bordaren azkena. Liburuaren erreseinak.
- KIROLAK. Saskibaloi kanpusa.

EUSKARAZ

- ELKARRIZKETA. Gorka Vazquez, Oiane Moran.
- AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

AMAITZEKO

- JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoaren errezeta eta Itsaso Aranaren ardacaren gaineko lezioa. Nora joan? Adibidez, Leioako Mendibile jatetxera.
- HOROSKOPOA.
- KOMIKIA. Dogan Gozel.
- DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- FLASH BACK. "Plentzitarra" trainerua 1987an, Bittor Egurrola.
- AITORMENAK. Aiora Zulaika, Maitane Nerekan.



30 Mertxe Mujika

Berbetan

AEK-ko koordinatzaile nagusia da elorriotarra. Bere ibilbide profesional osoa (22 urte) AEKn beharrez eman du, pozik gainera.



46 Gorka Vazquez



11 Natalia Monge



34 Portu Zaharra 1900



54 Aiora Zulaika



49 Leioako Mendibile jatetxea

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIBIDEA: Arnezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kuba 171
Tel: 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Olane Moran, Maitane Nerekan
FOTOGRAFIA: Asier Mentakia
TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria
KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Bittor Egunola, Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Amezaga, Itxaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Paya, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizara Lepoan Euskara Elkartea,
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta

UK Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



gugeu


Gehiago merezi zuten

Hauxe duzue UKren 121. zenbakia, udaren atarian plazaratzen duguna. Uda berez beroa izaten da, baina aurtengoa beroago ei dator, izan ere bazterrak harrotuta dabilta gure herri zahar eta nekatu honetan. Eta gainera, seguru asko ale hau zuen eskuetara ailegatzen denerako are harrotuagoak ibiliko dira (ekainaren 7an idazten ditugu lerrook). Arrasto guztien arabera garai latzak datozkigu. Etzipena, ilusio eza... horiexek dakarzkigu bihotzera gaur egungo gure herri honen egoera negargarriak. Ez dugu sekula ikasiko? Zenbat energia alperrik xahutzen da herri honetan?

Gu orain, gure nagusiekin akordatu gara, akaso Sorne Unzueta *Utarsus* zen emakume abertzalearen oroigarri Getxoko kale bati bere izena ipini diotelako. Bere belaunaldikoek, guk baino garai askoz latzagoak bizi izan dituzte; gerra garaia, gerraostea... Eta horiek hiltzen ari dira guztiak. Eta guk pena handia sentitzen dugu, sekula santan, euren bizitza osoan bakea ezagutu ez dutelako. Askoz gehiago merezi zuten. Guk behintzat, etorkizunik, esperantzarik eduki dezakegu. Eurak honezkero ez.

UK-ko lantaldea

matematika aplikatua



egon ginen >

Unai Basurko Algortako Lasai tabernan



Algortako Lasai tabernan biltzen den lagun taldea Unai Basurkoren munduko biraren egunez eguneko jarraipena egin zuten. Batek interneten begiratzen zuen Unairen kokapen zehatza, gero tabernan zeukaten munduko mapan markatzen zuten, horrela Unairen “fitxa” mugitzen zuten egunero bere mugimenduak islatzeko. Unaik bere esker ona adierazteko tabernara bildu zen Unai ekainaren 7an gauez. Hantxe harrapatu genituen guztiak.

[irudia]



Plentziako herensugea / Orain dela aste batzuk Plentziako hondartzan hartutako irudia da goikoa. Eguzkia atera bezain pronto hondarretan jolastera joan zen urrutiko herri baterik etorritako gizon bat eta hau izan zen emaitza. Gero, euriak herensugeari irabazi zion denbora luzez borrokan ibili ostean. Baina eguzkia agertu da ostera ere eta dragoiak begiak zabaldu ditu. Diotenez, uda bukatu arte gure artean izango dugu. Ez dugu uste ahotik sua botako duenik, baina badaezpada, adi egon! / Argazkia: **Asier Mentakia**



argazkia: MIKEL MARTINEZ

balkoitik balkoira 07

Ekainak **22** 22:30
Algotako Portu Zaharra
Etxebu Plazan

A. M. PENAGARIKANO JOKIN URANGA



Getxo
UDALAK
Bilakaia Publikoa



Algotako Bertsoari Eskola



EUSKALAK BIZI

**Iraganez doa denbora* beti / ALGORTAKO TREN GELTOKIA**

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > gabardina



Testua: **Xa2 Paya**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

1
Nekazari munduko
soinentzat egina,
Mafiaren mozorro
ezkutaezina,
Colomboren azala,
gangsterren kortina,
ganbek ere nahiago
dute gabardina!

2
Burberryk sortu zuen
mundura lehenengoz
eta aberastu zen
honexen medioz.
Nahiz eta egiten den
kotoi leun beroz,
batzuek janzten dute
eranzteko asmoz.

3
Heldutasun jantzia
udatik negura,
pertxan ere badauka
halako lilura!
Nahiz eta gabardinan
murgildu gustura,
denok ez dugu hartzen
Bogarten itxura.

* Doinua: Astoa ikusi nuen

Areeta, 2007ko ekaina

argazkia > GetxoPhoto jaialdia antolatu dute irailerako



Era honetako erakusketak egingo dira GetxoPhoton

Irailaren 10etik urriaren 5era arte, Getxophoto edo argazkiaren jaia antolatuko du Begihandi elkarteak. Herritarrei argazkigintzagaz zerikusia daukaten ekitaldi kulturalak eskaintzea da jaialdiaren helburua. Aldi berean, kalea arterako espazio publiko bezala aldarrikatu gura dute antolatzaileek. Horretarako, hil batean zehar, formatu erraldoia edukiko duten 20 bat erakusketa antolatuko dituzte udalerriko hainbat tokitan: fatxadak, erakustokiak, plazak, parkeak... Bestalde, lau egunetan zehar makina bat ekintza eskainiko dituzte: karpa, proiektzioak, tailerrak, hitzaldiak... Jaialdia urtero errepikatzea da Begihandikoen asmoa, bertoko zein nazioarteko argazkilariak bilduz. Izan ere, beste herrialde batzuetan arrakastatsuak diren antzeko jaialdiak egiten dituzte: Lisboa, Paris, Hamburgo... Euskal Herrian lehenbizikoa izango da Getxokoa. ○

historia > lehenbiziko europarrak euskaldunak izan ei ziren



Europako biztanleriaren 3/4ak penintsularen iparraldean ei dauka bere jatorria

Europako lehenbiziko biztanleak euskaldunak izan zirela uste du Jorge Maria Ribero Meneses filologo eta historialariak. Joan den ekainaren 6an, Donostiako Koldo Mitxelena kulturgunean *El verdadero origen de los vascos: la primera humanidad* aurkezteko egindako ekitaldian ikerlariak defendatutako teoria da. Esan beharra dago, ordea, Ribero Menesesek aipatzen dituen lehenbiziko euskaldunak ez direla gaur egun ezagutzen ditugunak, bere esanetan, Kantabria eta Euskal Herria gauza bera izan direlako beti, nahiz eta XVIII. mendean Enrique Florez historialariak euskaldunak Kantabriatik baztertu. Ribero Menesesen ustez, hori izan zen euskal abertzaletasunaren jatorria. Filologoak egindako ikerketen arabera, kantauri aldean garatu zen lehenbiziko gizaki inteligentea: europarren 3/4ak penintsularen iparraldean ei dauka bere jatorria. ○



Roke Deuna 25
280808 Getaria
Gipuzkoa



...harria



...lehengo garaiak...



www.saiaszgetaria.com / info@saiaszgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

euskal diaspora > Renoko liburutegiaren webgunea berritu dute



Euskal gaien inguruan kontsultatzeko: www.library.unr.edu/basquelibrary

Renoko Unibertsitateko (Nevada, AEB) Euskal Liburutegiaren webgunea berritu dute eta hemendik aurrera, munduko edozein lekutan gaudela ere, bertako liburuak kontsultatu ahal izango ditugu. Euskal kulturari eskainitako artxibategi nagusienetakoa da Renokoa eta orain atal guztietan (liburutegiko katalogoa, euskal datu basea, euskal artxibategia, euskal luzemetraiak eta euskal hemeroteka) egin ahal izango ditugu kontsultak bilatzaile bakarragaz, lau hizkuntzatan gainera: euskara, ingelesa, gaztelania eta frantsesa. Hain zuzen ere, lehen eskuragarri ez zeuden ataletan sartzeko aukera ematen du bilatzaile berriak; euskal artxibategia, esaterako. Horrez gain, RSS zerbitzua eskainiko du webguneak, liburutegiak jasotzen dituen tituluen berri berehala edukitzeko. Gainera, euskal gaien inguruko informazioa eskaintzen duten webguneen loturak eskuragarri egongo dira. ○

uda > Uribe Kostako jai giroan murgiltzeko prest al zaude?



Uda osoan zehar jaiak edukiko ditugu Uribe Kostako herrietan

Badator uda! Badator eguraldi ona! Badatoz jaiak! Ekainagaz batera gure herriak kolorez jantzi eta jai giroan murgiltzen dira. Bat-batean, santuakaz betetzen dira gure egutegiko orriak, baina kristautasun hori anekdotikoa besterik ez da gaur egun; izan ere, nahiko ahaztuta daukagu gure ospakizunen jatorria. Esan bezala, gure herrietako jai egitarauai erreparatuz gero, hainbat pertsonaiagaz egingo dugu topo, batzuk ezagunak eta beste batzuk ez hain ezagunak: San Juan, San Pedro, San Fernando, Corpus Christi, San Bernabe, San Antonio, Andra Mari... Bitxikeria legez: Erandion, esaterako, San Trifonen omenezko jaiak ospatzen dituzte. Trifon Sirian jaio zen eta santutegiak dioenez, deabruak uxatzeko eta gaixotasunak osatzeko ahalmena ei zuen. ○



“Barruan daukaguna ezagutzeko bidea da gorputz adierazpena” dio Natalia Mongek

Natalia Monge > dantzaria eta koreografoa

Mugimenduarekin lan egin du gaztetatik Natalia Monge algortarrak. Gorputz heziketa ikasi zuen eta eskola askotan ibili da irakasle. Hala ere, bere benetako grina dantza da. 25 urte zituenean Holandara joan zen koreografo izateko ikastera: “*Eskola berezia da hangoa, sormena bultzatzen du, nahi duzuna egiteko askatasuna emanez*”. Hartatik, hainbat proiektu sortu ditu eta beste askotan parte hartu du. Lan gogorra dela onartu arren, bera ezin da sortu barik bizi: “*Proiektu bat aurrea ateratzea eta diru laguntzak lortzea lan handia da. Hala ere, gaixotasun bat bezalakoa da; batekin bukatu gabe hurrengoan pentsatzen nago*”. Gorputz adierazpenaren garrantzia gutxietsi egiten dela uste du Nataliak: “*Barruan daukaguna ezagutzeko bidea da eta ez da hau kontuan hartzen*”. Leioako Umore Azokan, 2002an, lagun batzuekin sortutako Organics taldearen +ES3 lana aurkeztu zuen, diziplina ugari nahasten zituen obra dibertigarria. Honetan zuzendari lanetan ibili da Natalia: “*Gakoa ez da zer kontatzen dugun, baizik eta zelan kontatzen dugun*”. Ordu asko behar izan ditu emaitza txukuna lortzeko baina merezi izan duelakoan dago: “*Gurre erronka aurreko lanaren puntu beretik hastea zen, estresa*”. Ibilbide luzea daukate aurretik eta Sopolako jaietan, Berangon eta beste toki askotan ikusteko aukera egongo da. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

Salsidu nekatu barik igotzeko

Caro Baroja Institutua eta Bolue kalea lotuko duten arrapala mekanikoak ipintzeko lanak **1,8 milioi eurotan** eman ditu Udalak, eta aurreikusitakoa baino lehen, datorren **martxoan** egongo dira martxan

Salsidu Etorbidean (Algorta) arrapala mekanikoak eraikitzeko lanak eman ditu dagoeneko Tokiko Gobernu Batzordeak. Lanak ziurrenik uda ostean, irailean, hasiko dira eta egitasmoa eraiki behar duen enpresak aurreikusitakoa baino hil bi lehenago martxan ipintzeko konpromisoa hartu du. Horrenbestez, lanak egiteko sei hilabete eta erdiko tartea edukita, hurrengo urteko martxo aldean abian egongo direla aurreratu dute udal arduradunek.

Caro Baroja institutu parean hasi eta Bolue kalerainoko bitartean eraikiko dituzte arrapala mekanikoak. Institutu paretik eta Gaztelu-mendiko bidegurutzeraino arrapalak esku-mako aldetik joango dira, hortik Kasune kaleraino ezkerretatik eta bidegurutzea gaindituta alde beretik egingo dute gora Bolue kaleraino, Villamonte sarreran. Horrenbestez, hiru zati nagusitan banatuta egongo dira guztira 220 metroko luzera edukiko duten arrapalak. Hiru bidegurutzeetan plataforma garai batzuk ipiniko dituzte oinezkoak pasa ahal izateko. Halere, inguruotan garaje sarrera nahikotxo daude eta horregatik arrapalek ezin dute bide osoa jarraian egin, *“9 zatitan banatuko da arrapala garajeetarako bide batzuk libre utzi behar ditugulako eta horrek garestitu egin du obra”*, azaldu du oraindik jardunean den Getxoko alkate Iñaki Zarraoa. Egitasmoa eraikitzeak 1,8 milioi euroko kostua edukiko du, oster, hainbat hedabidek ondorioz-



Salsidu inguruan gaur egun oinez igo beharreko aldapa

tatu dutenez “lanengatik Udalak aurreikusitako baino 200.000 euro gutxiago ordaindu beharko dute”.

Lanak egiteko epea 6 hilabete eta erdikoa da eta irailean edo hasiko dira. Horren albotik, eraikitzeko ardura duen enpresak lanak aurretik ikusitakoa baino hil bi lehenago amaitzeko konpromisoa hartu du,

«9 zatitan banatuko dira arrapalak garajeetarako bide batzuk libre uzteko»

gauzak horrela, datorren urteko martxoan-edo arrapalak martxan egongo lirateke.

Bestalde, arrapalak eraikitzeak zirkulazio aldaketak eragingo ditu hainbat kaletan, batzuk dagoeneko zehaztu dituzte, berbarako: Gaztelumendi eta Kasune kaleetatik berebilak igotzeko norantzan bakarrik ibili

ahal izango dira.

Amaitzeko, gogora ekarri Villamonte-ko plaza eta Metro geltokia lotuko dituzten igogailuen eta eskailera mekanikoen proiektua ere aurrera doala; inguruko etxaldeko lurzatia desjabetzen hasteko erabakia dagoeneko hartu du Udalbatzak, 257.000 euroren truke. Eskailera eta igogailu horiek 2008ko udan martxan egon daitezke. ○

Datu batzuk

- **1.825.000 eurotan** eman dituzte lanak
- **2008ko martxoan** jarriko dira martxan
- **Lanak irailean** hasiko dituzte ziurrenik
- **Guztira 220 metroko** luzera dute
- **Caro Baroja institutuan** eta Bolue kaleko ibilbidean ipiniko dituzte arrapalak

Getxorako hotel erraldoia eta izartsua Barcelo taldeak egingo du Punta Begoñan



Punta Begoña galerien barru aldeko irudi bat, 2002an ateratakoa

Airiluzeko pasealekuaren aurrean, Punta Begoña galerietan (edo Etxebarrieta murrak) 5 izarreko hotela egiteko eta ustiatzeko kontratua sinatu zuten hilaren hasieran jarduneko Getxoko alkate Iñaki Zarraoa eta Barcelo hotel eta turismo kateko zuzendari nagusi Javier Berastainek.

Kultur ondare izendatuta dagoen eraikina Hotel Barcelo Getxo bihurtuko da (19.700 metro koadro), epeak betez gero, 2010ean. Zaharberritze lanetara eta bestelako egitekoetara 40 milioi euro inguruko inbertsioa egingo dute eta iragarri dutenez *“100 lanpostu zuzen sortuko”* ei dituzte. Berastainek

jakinarazi duenez, *“5 izarreko hotela izango da, ezaugarri horiekaz kateak EAEn duen aurrenekoa”*. Besteak beste, 152 logela izango ditu, 32 suite izango dira; *spa* eremua edo zerbitzua; kongresu, batzar eta banketeetarako 1.428 metro koadroko azalera, kartako eskaintzako jatetxea (223 metro koadro) eta bi aparkaleku sotoan (162 aparkatzeko-leku). Berastainek aurreratu duen legez, *“gure asmoa da galerien itxura errespetatuta fatxada-ko hormaren lerrotik atzera sartuta dauden leihoetan beira ipintzea; kanpotik emango duen itxura gaur egun galeriek duten bera izan dadin, fatxada errespetatzeko”*. ○

ABIAN TAO BERRIA

Hamaika aldaketa ditu TAO sistema ordezkatzeko duen Araututako Aparkatze Zerbitzu (AAZ-SER) berriak, izena bera da horietako bat. Getxon aparkatzeko ordaindu beharreko 1.674 gune daude, 519 Algortan eta 1.155 Areetan. Leku horietan 67 AAZ makina berri ipiniko dituzte horietan kreditu txartelaz ordaindu ahal izango da eta isunak kendu (12 euro) 24 ordu baino lehen eskaria eginez gero. Ordutegia ere aldatu dute eta hurrengoa da: 09:30-14:00 eta 16:00-20:00. Horiez gainera, aparkatzeko ordaindu beharreko zenbatekoa ere aldatu da, hau da: 30 min. 0,25 euro, ordu bat 0,6 euro, ordu eta erdi 1,15 euro, eta 270 min. (gehiena) 5,5 euro.

OINEZKOEK LEHENTASUNA IZANGO DUTE ANDRES CORTINAN

HAPOk (Hiri Antolamendurako Plan Orokorra) Andres Cortina (Algorta) kalea oinezkoentzako gune izendatu du, eta karrika hori urbanizatzeko proiektua onartu berri du Udalak. Egiteko horretara 305.032 euro bideratu dituzte, eta HAPOri jarraituz oinezkoek “lehentasuna” izango dute. Amaieran, Andres Cortina kalea eta San Nikolas plaza lotuta geratzeko dira.

ERAKUSKETA GELA BERRIA TORRENEK

Torrene kalean (BBKren bulegoa zegoen lekuan, Algorta) erakusketa gela bat egiteko proiektuaren idazketa egitea (33.000 euro) agindu du dagoeneko Getxoko Udalak. 200 metro koadroko aretoa izango da eta 3 horma eta 5 zutabe handi izango dituela aurreratu dute udal arduradunek.

EREAGA, ARRIGUNAGA ETA AZKORRIN BANDERA URDINA IPINIKO DUTE

Oraindik baieztapen ofiziala jaso ez badute ere, hondartza eta ura garbi daudela egiaztatzen duen trapu urdina edukiko dute aurten Getxoko hondartzetatik hiruk: Ereaga, Arrigunaga eta Azkorrik; Areetakoari eman ahal izateko garbiketa lan sakonagoa eta handiagoa egin beharko dute. Getxoko Udalak 2004tik dauka bere gain udalerriko hondartzak garbitzeko ardura, eta egiteko horretara aurten 359.000 euro zuzenduko dituzte, ostera, zenbatekoaren gehiengoa Aldundiak jarriko du. Bestalde, udal arduradunen esanetan “2008rako ISO kalitatearen egiaztagiria lortu nahi dugu gure hondartza guztientzat”.

BIZIKLETAK DOAN ERABILTZEKO ZERBITZUA

Getxoko Udalak Ekobizi Movilidad enpresari eman dio 30.000 euroren truke udan (ekainak 15-irailak 15) bizikletak doan uzteko zerbitzuaren ardura. Guztira 20 txirindula egongo dira erabilgai Ereagako eta Bizkaiko Zubiko Turismo Bulegoetan (10:00-14:00 eta 16:00-20:00). Zerbitzuak daukan harreraren arabera udagoieneran ere martxan mantentzeko aukera egon daiteke.

IAZ 239.313 KILO ARROPA BATU ZIREN BIRZIKLATZEKO

Berohi Kooperatibak (Bizkaian arropa zaharra batzeko eta birziklatzeko ardura duen elkarteak) jakinarazi duenez, pasa den urtean birziklatzeko edukiontzietan 239.313 kilo arropa batu zituzten, 2,83 kilo getxoztar bakoitzeko. Bizkaian oro har 1.520.000 kilo batu ziren iaz. Getxo da gaur egun Bizkaiko udalerrietatik arropa birziklatzeko edukiontzi gehiago daukan herria, 17 guztira, eta datorren urtean beste bat gehiago jarriko dutela aurreratu dute.

Bertsolariak balkoira

Hilaren 22an dute bertsozaleek hitzordua, ohi legez **Portu Zaharreko Etxetxu** plazan



Balkoitik Balkoira saioaren inguruan sortzen den ikusmina itzela izaten da urtero

Heldu da bagila eta bertsozaleak balkoira begira daude dagoeneko. Ekainaren 22an ipini dute aurten Balkoitik Balkoira saioagaz zita, eta bertsolariak Jokin Uranga (Azpeitia, 1981) eta Anjel Mari Peñagarikano (Albiztur, 1957) dira. Baleki eta balu izango da ziurrenik lehia. Portu Zaharreko Etxetxu plazako balkoi banatan, gaueko 10:30ean aurrez aurre ipiniko dira bi erronkariak. Nork nori botako dion desafioa? Horri ez diogu emango garrantzia, buruz burukoan iaioen denak jasoko duelako saria: bertsozaleen txalo zaparrada ikaragarria.

Bertsolariak elkarren alboan ikustera ohitu gara, gaur egun bertsolaria eta entzulea dira bekoz beko ipintzen direnak, ostera, beti ez da horrela izan. Bertsolaritzako tradizioak konta-

tzen du balkoitik balkoira moduko bertso-saioak 1802 aldean egiten hasi zirela Tolosan. Urteek bere bidea egin zuten eta bertsotan egiteko modu hori aldatzen joan da, galtzen. Horregatik kantatzeko modu hori berreskuratzeke asmotan hainbat lekutan horrelako saio motak egiten dira gaur egun. Bide horri eutsi zion Algortako Bertsolari Eskolak (ALBE) ere 1998an, eta lehenengo balkoitik balkoira bertso-saioa San Nikolas plazan egin zuten. Gerora Portu Zaharrera eroan zuten ekitaldia, eta antzinako kutsuari eusten dion paraje ederrak ematen dion xarma ere ikuskizunaren mesedegarri bihurtu da. Urtero legez xarmaz beteriko saiora jende andana hurbilduko da, eta leku ona gura duenak arin ibili beharko du. ○

Maitane Nerekan > Bapirukeko Geroako zuzendaria

“Aurten hiru Bapiruke eta Bapikasi proiektu berezia antolatu ditugu”



Maitane Nerekan

Bizarra Lepoan euskara elkarteak umeen (5-12 urte) oporraldian antolatzten dituen Bapiruke udaleku irekietako zuzendarietako bat da Maitane Nerekan. Udalekuon asmo gorena umei aisialdia euskaraz bizitzeko aukera ematea da.

—Aurten hiru lekutan egingo da Bapiruke? —Hiru Bapiruke (Geroa, Erromo eta Zabala ikastetxeetan) eta Bapikasi bat (*Trinitarias*-en) antolatuko ditugu. Bapikasikoa proiektu berezia da, nolabait euskara ikasteko bideratuta dago, gehienbat etorkinei begira. Urtero legez ume gehien hartuko dituen Bapiruke Zabalakoa izatea espero dugu, 100-120 haur, eta Geroan eta Erromon 80na, baina ziurrenik aurten gehiago izango dira. Bapikasiko kopurua txikiagoa izango da seguruenik, proiektu berezitua delako, 40 bat lagun hurbilduko direla aurreikusten dugu. Halere, Bapikasin beste Bapirukekook ere parte hartuko dugu, esaterako: *Getxo ezagutu getxoztarren bitartez*, *Getxoko bizimodua eta eguneroa ezagutu*, playback jardueretan. Denok parte hartuko dugunez ikus-entzunezko materiala sortuko dugu eta Getxo Folken erakusketa bat egingo da.

—Urteetan hazten joandako ekimena da.

—Halaxe da. Aurten ekimena Geroara zabaltzea erabaki da, bertatik hala eskatu dutelako eta geuk ere ondo ikusi dugu ume piloa dagoelako. Iaz, adibidez, 2. txandan uste dut izan zela, 140 ume batu ziren Zabalan eta gehiegi ziren, horregatik aurten kopuruak apur bat banatzea erabaki da, ume guztiak sartzeko, batzuk kanpoan gera ez daitezen.

—**Hasierako helburuagaz jarraitzen al du?**

—Helburu nagusia da Uribe Kostako umei aisialdia euskaraz bizi ahal izateko aukera ematea, agian berriro azpimarratu behar duguna! Guraso askok uste dute udaleku arrunt bat dela eta erabiltzen dute, ulergarria da lan egin behar dutelako-eta, umeak uzteko leku bat bezala; bai, noski, hori ere helburu bat da, umei ekintza desberdinetan parte hartzeko aukera ematea (surf, piraguisimo, eskalada, etab.)... Baina kontuan hartu behar dute euskaraz direla, aisialdian euskara bultzatzeko udalekuak direla; gertatu izan zaigu euskaraz ez zekiten umeak egon zirela, eta esaten dizute: “*nire umeak koniatzen dit baka-rrik dagoela; ez ditu jolasak ulertzen*”... Gure udalekuak euskara sustatzeko dira gehienbat. —**Ekintzak euskal kulturari lotuta al daude?** —Saiatzen gara, aurten ahalegin berezia egingo dugu. Bapiruke hasi zenean euskararen erabilera bultzatzea zen helburua eta begiraleek hori zelan bideratu jakiteko ikasta-

«Umei aisialdia euskaraz bizi ahal izateko aukera ematea da helburua»

ro bat egin zuten; berez zaila delako, umei behin eta berriz euskaraz egiteko esanda ere ez da beti lortzen. Bestalde, aurten beste balore batzuk lantzea ere pentsatu dugu: euskal kulturarekin lotutakoak, kultur aniztasuna edo genero berdintasuna... Ez dira helburu nagusiak baina zehar-lerro modura lantzeko asmoa dugu. Etorkizunean euskara sustatzeko teknikak hobetu behar dira, oraindik umeek asko hitz egiten dute erdaraz eta jarre- ra hori aldatzeko teknikak behar ditugu. ○

Laguntzak

kultur eta kirol elkarteentzat eta euskara bultzatzeko

Tokiko Gobernu Batzordeak urtero era-kunde baten ohiko jarduera bideratzeko diru-laguntzak (ekitaldi jakin batzuetara zuzentzen direnak salbu) banatu ditu 34 kirol talde eta 18 kultur elkarteren artean. Denetara 470.575 euro banatu dituzte, 385.550 euro kirol taldeetara bideratu dira eta 85.025 euro kultur taldeetara.

Bestalde, Getxoko Udalak 44.929 euro banatuko ditu euskara sustatzeko 2007ko diru-laguntzen deialdiaren barruan; guztira 14 proiektu aurkeztu dira deialdira eta ondorengo 11 egitasmoek jasoko dute laguntza: Bapiruke (20.865 euro, iaz baino %20 gehiago), Egizuren Gazte Saltsa (6.503 euro, %14,3 gehiago), Irakurzaleen Txokoa (3.459 euro, %9 gehiago), Kliska (241 euro, 90 euro gutxiago), Sasoian Saioko posterra (1.027 euro, %2,7 gehiago), *Getxo euskaldun zaharren eskutik* dokumentala (4.626 euro, 2 urtetan emateko laguntzagaz Udalak %49 lagunduko du), UK Berri (3.984 euro, %16 gehiago), Bizkaiko Trikitixa elkarte (hainbat proiektuetarako, 4.200 euro guztira). ○

ALERGIA



CRISTIAN AMEZAGA
MEDIKU ALERGOLOGOA

Alergiatarako probak

MEDIKOSTA

IMO-SANITAS-MAPFRE

ALGORTAKO ETORBIDEA 96
48991 ALGORTA
94 460 98 45

PPS: 106-06

Zelako Tajada > Leioako jaietako koadrilarik zaharrena

“Hurrengoak nire lobak izango dira,
amamak luzerako dauka eta”

Leioako “Zelako tajada” koadrilak 15 urte bete ditu aurten eta ospatzeko, egitarau berezia prestatu dute ekainaren 23rako. Egun horretan, erakusketa, jatekoa eta Deski zein Jarraitu taldeen kontzertuak antolatuko dituzte taldea osatzen duten 25 gazteek Aldapa auditoriumean. Aurtengo sukalkia ere eurek proposatutakoa da.

Zelako tajada koadrila leioaztarraren arima nonor bada, hori Mari Carmen Saratxaga da. Taldeko “*amama*” dela diote gazteek. Bera izan zen koadrilaren sortzaileetako bat orain dela 15 urte eta bera izan da denbora horretan guztian gazteen alde behar gehien egin duena. Kementsua da emakumea, nekatzen ez den horietakoa, eta ez du zalantza izpirik erakusten taldeko kideak agindu behar dituenean. Bere aho-tsa besteenaren gainetik entzuten da: “*Ekarri hori, egin hau, egin hori bestea...*”. “*Orain 30 bat urte dauzkaten nire semeak hasi ziren honegaz. 140 pertsona ginen orduan, jaietako koadrilarik handiena*”, gogoratu du Mari Carmenek. “*Orduko gazte horiek gaur egun emazteakaz bizi dira, baina urtero kamiseta bat egiten dute oroigarri moduan. Hurrengoak nire lobak izango dira, amamak luzerako dauka eta*”.



Argazkian, Ivan Renteria, Jonatan Rueda, Mari Carmen Saratxaga eta Ivan Berdugo

Taldeak hainbeste irauteko sekretuaren inguruan galdetzean, berriz, “*nigatik izango ete da?*” erantzun digu serio-serio Mari Carmenek eta gutxienez 10 urte gehiago betetzeara espero duela nabarmendu du.

«Kalean sumatzen den jai giroa nahiko tristea dela uste du Mari Carmenek»

Aurten kalean sumatzen den jai giroa nahiko tristea dela uste du emakumeak. “*Udalak batere laguntzen ez duelako da*

hori”, deitoratu du eta herria gehiago kontuan hartu behar dutela azpimarratu. “*Adibide bat jartzearen: zer gertatu da aurtengo kontzertuakaz? Suposatzen da Internet bidez inkesta egin dutela, baina ez dut uste ekarri behar duten Jarabe de Palo horren alde bozkatu duenik inork. Nik kalean galdetu dut eta jendea ez dago ados Udalak hartutako erabakiagaz. Zeozer dibertigarriagoa ekarri beharko lukete, Fito y los Fitipaldis edo Su ta Gar, esaterako. Horiek badira talde onak, jaiak animatzeko modukoak!*”. ○

Nahi baduzu, euskaraz

Administrazioan eta merkataritzan euskara bultzatzeko proiektu berria



Boligrafoak eta postitak ipintzeko balioko du metakrilatozko ontziak

Leioako Euskara Zerbitzuak euskara herriko zerbitzuetan bultzatzeko hainbat ekimen egin du. Oraingoan, administrazioan eta merkataritzan euskara bultzatzeko planaren barruan, ekimen berria jarri du martxan: *Nahi baduzu, euskaraz* leloa eroango duen metakrilatozko ontzia beharginen artean banatzea. Ontziak diseinu moderno eta erakargarria edukiko du, oso koloretsua, eta boligrafoak bertan sartzeko zein postitak ipintzeko balio izango du.

Helburu bikoitza edukiko du egitasmoak: alde batetik, bezeroek administrazioan zein merkataritzan lanpostu euskaldunak identifikatzeko aukera edukitzea eta bestetik, administrazioan bereziki, langile- en artean kide euskalduna nor den jakin

dezaten; beharrean dauden bitartean ere, euren artean txoko euskaldunak ere sortu ahal izateko.

Administrazioan 80 bat euskarri banatuko dituzte eta merkataritzan hiru, hori da eta programan parte hartzen duten denden kopurua (halere, handituko dela aurreikusten dute proiektuaren arduradunek). Nori zuzenduta dagoenaren arabera (merkataritza ala administrazioa), logo ezberdina eroango du euskarriak.

Egitasmoa beharginen artean arrakastatsua izatea espero dute Euskara Zerbitzutik. Askok badute dagoeneko horren berri eta jarrera baikorra erakutsi dutela azpimarratu dute arduradunek. ○

ZUMARRAGAKO TXAPELKETAN GAILENDU DA LA KANTORIA

Leioako Musika Eskola La Kantoria korala garaile suertatu da joan den maiatzaren 26an Zumarragan egindako Antigua Abesbatzak txapelketan. Lehiaketaren hamargarren edizioa izan da aurtengoa eta hainbat lekutatik joandako parte-hartzaileak eduki ditu: Katalunia, Leon, Zamora, Kantabria, Euskal Herria... Sari horrek Kantu Koraleko Sari Nagusirako klasifikatu ditu La Kantoriakoak.

ELIZA MODERNISTA BAT ERAIKIKO DUTE SAN BARTOLOMEN

Oraingo eliza abenduan eraitsiko dute eta estilo minimalistako beste bat eraikiko dute leku berean. Eliza berriak 1.200 metro koadro edukiko ditu eta 18 hil beharko dituzte lanak burutzeko. Proiektuak tenplu zaharraren gurutzea eta ataria gordeko ditu.

EUSKARAREN NORMALIZAZIOAREN INGURUAN

Txeli Urain Leioako euskaltegiko zuzendariak eta Joxe Belmonte euskara teknikariak euskararen normalizazioaren inguruko hitzaldia eskaini zuten hil hasieran Bartzelonako Unibertsitatean. Generalitateak eta unibertsitateak berak gonbidatuta, maiatzaren 31n eta ekainaren 1ean Kataluniako hiriburuan hizkuntzen normalizazioari eta irakaskuntzari buruz antolatutako jardunaldietan izan ziren.

udondo

taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK

ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK eta INPRESIO DIGITALAK

egiten ditugu

Best

iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

e-mail: hirustab@euskalnet.net

BETIKO IKASTOLA

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

Eskola Escuela

Plater-Tiro eta Ehizarako Kirol-Elkartea

Taberna eta kartutxo denda

Posta Kutxa 33 Leioa
Tel:94 633 81 59

Maria Fernandez de Viana > antzerki irakaslea

“Gogo izugarria daukagu urtean zehar egindako lana jendaurrean erakusteko”

Maria Fernandez de Viana getxoztarrak antzerki eskolak ematen dizkie zazpi urtetik bederatzira bitarteko umeei, Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. Txikitatik aktorea izan gura zuela argi eduki zuen Mariak eta bere “aukera” heltzen den bitartean, zerbitzaria izatea baino, antzerki eskolak ematea gurago du gazteak, gehiago “betetzen” du-eta. Ekainaren 27an, umeakaz prestatutako obra estreinatuko du Astrabuduan bertan.

—Getxoko Antzerki Eskolan ikasi eta eskolak ematen amaitu duzu.

—Lehenengo eta behin tailerretan ibili nintzen eta ondoren profesionaletan sartu nintzen lau urtez. 2003an amaitu nuen eta ordutik eskolak ematen ditut eskolan bertan, Astrabuduan, Santurtzin eta Plentziako ikastolan. Horrez gain, talde batean nabil antzeztzen, lehenengo eta behin aktorea naiz eta. Kastingak edo antzeztanak prestatzen ditudan bitartean, baina, nahiago dut eskolak ematea eta ez nire lanbideagaz zerikusirik ez daukan beste zerbaitetan jardutea.

—Berbaiguzu Astrabuduko antzerki taldearen inguruan.

—Erandio eta Astrabuduan erroldatuta egon behar dute parte-hartzaileek. Astean



Argazkian, Maria Astrabuduan zuzentzen duen taldeagaz

behin elkartzen gara eta ordu biko saioa egiten dugu. Ikasturte amaierako proiektua egiteko irakurzaletasuna sustatzeko obra bat aukeratu dut. Umeak oso urduri daude estreinurako gutxi falta zaielako.

—Zer suposatzen du umeei antzerki eskolak ematea?

—Umeeek konfiantza osoa ipintzen dute zугan. Eskatuz gero, leihotik botako lirateke. Denboratxoa daramagu alkarregaz eta bidualtzen diedan guztia betetzen dute. Na-

gusiek, ordea, guztiari arrazoi bat bilatu gura diote. Umeek, ordea, ez daukate askotan antzerkian beharrezkoa den heldutasunik. Bizitzako esperientzia askotan interpretatu egiten da, baina umeakaz ezin duzu horrelakorik egin oraindik ez dutelako gauza askorik bizi.

—Gutxi falta zaizue estreinurako.

—Bai, eta badakite. Gogo izugarriak daukate urtean zehar egindako lana jendaurrean erakusteko. Gonbidatuta zaudete! ○

Autobusa auzoetan

Altzaga, Goikoa, Astrabudua eta Lutxana

lotuko ditu garraiobide berriak



Autobusagaz erreazagoa izango da inguruetako auzoetako bizilagunentzat erdialdera joatea

Biztanle gehien dauzkaten auzoak elkarren artean lotzeko autobus linea berria martxan ipiniko du Erandioko Udalak. Horrela, erdialdetik urrun dauden lekuek daukaten garraio eskasiagaz amaitu gura du administrazioak. Izan ere, Astrabuduan eta Altzagan pilotzen dira herritarrarentzat beharrezkoak diren zerbitzu gehienak: anbulatorioa, azoka, dendak, metro geralekua, Udaletxea...

Horrela, biztanle kopuru txikia daukaten auzoak indartu gura ditu Udalak eta euren arteko komunikazioa hobetzea helburu nagusietako bat dela azpimarratu du, Erandio izugarri zabaldutako udalerria da-eta.

Behin pasatu berri diren hauteskunde-

etan irtendako udalbatza egituratuta dagoenean lanak hasiko dituztela iragarri du Mikel Arrieta-Arañabena Erandioko alkateak. Orduan proiektuaren bideragarritasuna aztertuko duten lan taldeak osatuko dituztela agindu du.

Bestalde, Altzagatik Goikoara doan errepidea berrituko dute Bizkaiko Foru Aldundiak eta Udalak berak. Hain da konplexua proiektua non fase bitan egin behariko duten. Lehenbizikoan, Obietako kaleko amaieratik hasita Arriagara arte (829 metro guztira). Lau milioi euroko aurrekontua edukiko du Udalak ibilbide osoan (fase bietan) honako hobekuntzak egiteko: 3 metroko errai bi, lorategiak, espaloiak alde bietan eta 0,50 metroko bazterbideak. ○

XVII. MENDEKO ARMARRIA ZAHARBERRITUKO DUTE

Arriaga eskolen parean dagoen Artetxeko etxearen armarría zaharberrituko dute Arte Ederretako fakultateko ikasleek. XVIII. mendekoa da armarría eta Udalak Euskal Herriko Unibertsitateagaz sinatutako hitzarmenari esker konponduko dute. Egur polikromatuzko ezkutua da, baina bertako antzinako ikurrak desagertu egin dira denboraren poderioz. Ikasleek Jose Maria Herrera irakaslearen gidaritzapean burutuko dute lana.

SAN TRIFON ETA KUKULARRAKO JAIAK ERANDION

Uda iristear dago eta beragaz gure herrietako jaiak. Erandio ez da salbuespena izango eta datozen egunotan San Trifon eta Kukularrako jaiak ospatuko ditu. Kukularrako jaiak, esaterako, ekainaren 22tik 24ra izango dira. Egun horietarako hainbat ekintza prestatu dituzte: igel txapelketa, dantzaldiak (Arenal eta Bizkaigorri taldeak), paella lehiaketa, haur parkea, magia ikuskizuna, tortilla lehiaketa, Betizuak, mus txapelketa... Bestalde, San Trifongo jaiak ekainaren 29tik uztailaren 3ra izango dira, Arriagan. Jai horietan, musika eta herri kirolak (idi-probak) izango dira nagusi. 29an eta 30ean dantzaldia egongo da, Aitzama eta Drindots taldeakaz, hurrenez hurren, eta uztailaren 3an, berriz, Altzaga abesbatzaren kontzertua.

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Torrene 2, ALGORTA
T. : 94 491 12 71

Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

T. 94 467 17 13

F. 94 467 42 41

ERANDIO (Bizkaia)

Mobila

Asier: 629 411 838

e-posta: basolanak@terra.es

Lorategien zainketa
DEITU!

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?

Etxebizitetarako igogailuak

Eskailera igogailuak

Plataformak

Arazoei agur... 902 54 08 54

www.arlan.biz

18UK

UK19

SAN JUAN GAUEKO AKELARREA EGINGO DUTE URKON

Sanjuanak Euskal Herrian barrena hedatutako jaiak dira, ia udalerrri guztiek ospatzen dituzte eta. Horrela, ekainaren 23an, zapatua, akelarrea egingo dute Urkon, 22:30ean. Ondoren San Juaneko sua piztuko dute, gure artean dauden espiritu txar guztiak uxatzeko eta gau magikoari paso emanez. Ekitaldia amaitzeko, berriz, txokolatada egingo dute bertaratzen diren guztientzat. Gure antzineko usadioak berreskuratzeko aukera paregabea ddaa barik.

ITZARTU ANTZERKI TALDEAK LAN BERRIA AURKEZTUKO DU

Sopelako Itzartu Antzerki Taldeak *Aquellas mujeres* izenburudun antzezlan estreinatuko du ekainaren 23an, zapatua, kultur etxeko ekitaldi aretoan. Hitzordua 19:30ean izango da. San Juan eguna borobila izateko aukera eskaintzen dute Itzartukoek. Galduko al duzu?

IBERREKO ERROTONDA AMAITU DUTE DAGOENEKO

Iberreko biribilguneari azken ukituak ematen dabilta eta dagoeneko Bizkaibusak probak egin ditu bertan. Hain zuzen ere, garrantzitsua da proba horiek ondo irteea, mota horretako ibilgailu ugari pasatuko da eta bertatik. Hegoaldeko sahisbidea ireki zutenetik Iberren sortu diren auto pilaketakaz amaitzea gura du Udalak (gaur egun ibilgailu asko pilatzen da Gatzarriñe kalean). Era berean, ibilgailuen abiadura murrizteko gailuak ipiniko dituzte biribilgunearen inguruan. Udalean pozik agertu dira emaitzagaz. Gutxi barru, gainera, markesinak ipiniko ditzute Urgitxetako geralekuetan, itxaroten dagoen jendeak euria dagoen egunetan aterpea izan dezan.

Gora sanpedroak!

Ekainaren 27 eta uztailaren 1 bitartean ospatuko dira jaiak aurtan



Sopelako jaietako giroa txosnen inguruan iaz

Ekainaren 27tik uztailaren 1era bitartean Sopela jaietan murgilduko da. Bost egunetan zehar, hainbat izango dira udalerriko kaleak beteko dituzten ekitaldiak. Aurtan, esaterako, kontzertuak, kale antzerkia eta Gaztegunea izango dira ekintzarik aipagarrienak.

Ekainaren 27an, esaterako, Karoli Irakasleak *Gurpil Gizona* izeneko antzezlan eskainiko du Udaletxeko plazan. Hori ez da, baina, kalean ikusgai izango dugun antzezpen bakarra izango; makina bat ikuskizunagaz goatzeko aukera izango dugu: *Kanpanolue, Oliver Magoa, +ES3,*

Circo Bache de Lux...

Horrez gain, Gaztegunea ipiniko dute plazan, edo gauza bera dena, 14 urtetik gorakoentzako kirol ekintza eta joko eremua. Bertan errokodromoak, Tibetar Zubia, tiro-lina, WI kontsolak, surf taularen simulatzailea, tailer zientifikoak eta abar egongo dira herriko koadrilentzat eskuragarri.

Adin eta gustu guztientzako kontzertuen eskaintza zabala ere egongo da, besteak beste, Gozategi, Axut, Lehendakaris Muertos, UPS Perkusio, Txorromorro, Ostadar, Perfusion (batukada), Ene bada, Erdizka Lauetan, Iru-xur, Ras Reguilon eta La Pulkeria. o

Alfonso Angulo > Airetik Clubeko kidea

“Parapentea txirindulan ikastea bezalakoa da, ez da inoiz ahazten”



Parapentearan inguruan informazioa eskuratzeko: www.sopelanaprapente.com

Orain dela sei urte, parapentea praktikatzeko atea ireki zituen Sopelako Airetik Clubeko kidea da Alfonso Angulo. Garai hartan Uribe Kosta inguruan ez zegoen horrelakorik eta kirol horretan jarduten zutenen artean aurrera egin zuten egitasmoagaz. Gaur egun zenbait txapelketetan parte hartzeaz gain (Euskadikoa, Liga Norte, Espainiakoa...), gura duenarentzako hegaldia antolatzen dituzte. “Sopelan bakarrik ez, leku askotan ibiltzen gara parapenteagaz: Urduñan, Avilan...”.

Gutxiengo baten kirola izaten jarraitzen badu ere, Euskal Herrian parapentea jende askok praktikatzen duela uste du Alfonsok. “Halere, gehiegi hazten ari da. Hegaz egiteko zonaldeetan pilaketak egoten dira askotan. Sopelan gertatzen hasi da daborduko”. Parapentea edozeinek praktika dezakeelako izan daiteke hori. “Ez dago adin mugarik, gastu fisikorik ia ez dagoelako. Egon daitekeen muga psikologiko bakarra bertigoa da, parapenteak sentazio hori eragiten ez duen

arren. Baina bertigoa izanez gero, ez zara muntatuko ezta?”, azaldu du kirolariak. Gainera ikasteko oso erraza dela gehitu du, “txirindulan ibiltzen ikastea bezalakoa da, ez da inoiz ahazten”.

Hegaz egiteko leku kuttunik ez duela dio Alfonsok. “Egia esateko, non egin berdin du egoera egokia den bitartean. Piedrahita (Avila) leku onena da kilometroak egiteko; Piriniotako ikuspegia ikusgarria da eta Sopelak itsaso gainean hegaz egiteko aukera eskaintzen dizu. Halere, garrantzitsuena airean egotea da”.

«Parapentea gehiegi hazten ari da azken boladan»

Parapentearan inguruan gehiago jakin gura izanez gero, ekainaren 23an eta 24an erakustaldi garrantzitsua egingo dute Urduñan munduko akrobata onenek eta irailan, berriz, Aireko Aratustea antolatuko dute Sopelan. o

DIDAK hamilton IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

01 SOPELNET S.L.



Jokoak sarean • Txapelketak • Internet • Txat • E-mail • Lanak • Bideo joko eta kontsolen alokairua, salmenta • Fax zer-

[ordenagailuen salmenta](#)
[zerbitzu tekniko](#)
[kontsumitzeko gaiak, zure etxean](#)

Zubigane, 5 - 48600 SOPELANA
e-mail: 01sopelnet@terra.es
www.geocities.com/sopelnet

94 676 00 62- Fax:94 676 52 30



- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA
Tfnoa.: 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

san inazio
autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

LALIAK
Taberna

Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94 676 03 28

Loteria
Sopela

Iparragirre 6, Sopela



**MARGARITAS MARGOLAN
ERRALDOIA METRO
GELTOKI PAREAN**

Luis Olaso eta Aaron Diego artista getxoztarrek, *Margaritas* margolan erraldoia egin dute Berangoko metro geltokitik hurbil dagoen eraikin bateko aurrealdean. Ekimena artistek proposatu eta gauzatu dute. Orain dela bi urte abiatutako THT enpresaren sortzaileak dira Aaron eta Luis. Azalera handiak dekoratzeko helburuarekin sortu zuten enpresa eta, dagoeneko, Lekeitio, Erandio, Balmaseda eta Portugalete bezalako herrietan lan egin dute. Euskal Herriitik kanpo, Madril,artzelona eta Valentziako hainbat eraikin edertu dituzte. Oso estilo berezia daukate eta korronte berri baten sortzailetzat dauzkate euren buruak: *Ponismoa*; hau da, artea guztion eskura jartzean datza. Ez dituzte aurrekontu handiak erabiltzen eta gehienetan spray teknikaz baliatzen dira euren obrak gauzatzeko. Enpresa gaztea izan arren, seriotasuna, segurtasuna eta zintzotasuna erakutsi dute euren zerbitzuak kontratatu dituzten udalen arabera.

**KALEJIRA ETA
MARIACHIAK URTEKO
GAURIK LABURRENEAN**

Urteko gaurik laburrena da San Juan gaua. Suaren inguruan ospatzen dugu egun hau, aspaldiko partez. Berangoko Kultur Etxeak hainbat ekitaldi antolatu ditu. Arratsaldeko 8etatik aurrera, Berangoetatik abiatuta eta Lantzarte auzoraino, kalejira berezia egongo da *La Tal* taldeak girotua. Hauek, suhiltzaile kamioiak eramango dituzte eta, *Le Pompiers* izeneko espektakuluarekin, kaleak animatzen saiatuko dira. Ondoren, San Juan su txikia eta txokolatada izango da. Nagusiek, Mariachi eta txahalki erreaz gozatzeko aukera izango dute euro baten truke. Gainera, Atleticeko baloia zozketatuko dira gau osoan zehar. Bai txahalkiaren dirua zein zozketan lortutakoa, *Berangotik Guatemalara* proiektuko laguntzat izango da.

Anabel Landa Gaubeka > Berangoko alkate berria

“Udala eta herritarren arteko harremana indartu gura dut legegintzaldi honetan”



Anabel Landa

Berangon jaio, hazi eta hezi da Anabel Landa. Eusko Alderdi Jeltzalean militatu du gaztetatik. Loiuko Udalean kultur teknikari lanetan ibili da azken 20 urteotan. Hala ere, ez du uste zail egingo zaionik Miren Dobaranen lekua hartzea, ondo ezagutzen baitu herria.

—Orokorrean, zein da zure proposamena datorren legegintzaldirako?
—Legegintzaldi hau jendearekiko harremanetan oinarritu gura dut. Hauteskunde kanpainak iraun duen bitartean foro bat izan dugu interneten eta herriko jendeak parte hartu du. Niretzat oso interesgarria eta aberasgarria izan da. Ez dut uste orrialde horregaz jarraituko dugunik, baina harreman hori mantentzeko beste bide bat bilatuko dugu. Horrez gain, proiektu zehatzei dagokionez, Berangok nahiko maila ona daukala uste dut, baina zerbitzu batzuk faltan ditu. Moreaga-Kurtze eta Sabino Arana ingurua lotu nahi dugu. Horrekin herritarrak hurbiltzeaz batera, herrigune bat sortu nahi dugu. Ekipamendu gehiago emateaz gain, herriko plaza baten papera beteko lukeen biltzeko gune bat sortu gura dut.

—Ze beste proiektu daukazu buruan?
—Herritarrek beti eskatu izan duten zerbitzua kiroldegia da. Oraindik ez daukagu guztiz finkatuta non joango den eta nolakoa izango den, baina egin egingo da. Beste alde batetik, Gazte Plana dago. Berangon Euskara Plana eta Berdintasun Plana dauzkagu, baina gazteentzako plana falta da. Horren egituraketan herriko gazteek hartuko dute parte zuzenean, eurek eta beste agente batzuk definitutako plana izango delarik. Ezer baino lehen, gazteek bizi duten egoeraren diagnostikoa egin beharko dute eta, horren arabera, ekintzak diseinatuko dira. Nik pertsonalki, gazteak biltzeko leku fisikoak falta direla uste dut.
—Azken hilabeteotan ika-mikak egon dira Udala eta bizilagunen artean, asteburuetan sortzen diren liskarrak direla eta. Arazo honek ba al du irtenbiderik? Zein?
—Arazo honi konponbidea ematea oso zaila da, herritarrak ere ez dira ados jartzen. Lehen aipatutako foroan gai honen inguruko eztabaida sortu zen beraien artean. Nik argi daukat arazoak sortzen dituztenak ez direla Berangoko gazteak. Hala ere, Udalean egon arte eta gure ahalmena eta baliabideak zeintzuk diren jakin arte, ezin dut esan konponbidea zein izango den. Seguru asko, zaintza ezinbestekoa izango da.

**«Era partehartzailean
egituratuko den Gazte Plana
jarri nahi dugu martxan»**

—Eta euskararen normalkuntzari dagokionez, ba al daukazue plan zehatzik?
—Euskara kalera atera nahi dugu, erabilera bultzatuz. Ez dakigu zehatz mehatz zer egingo dugun, baina gure eginbeharren artean dago euskararen normalkuntza. Mintzapraktika taldeak sortzea izan daiteke erabilera bultzatzeko era bat. ○

Lirain abesbatza >

“Julen Ezkurak obra bat konposatu digu 15. urteurrena ospatzeko”



lazko abenduan Lirain abesbatza Parisen

Gorlizko Lirain abesbatzak 15 urte beteko ditu aurten eta ospatzeko, Julen Ezkurra konpositoreak eta Jon Enbeita bertsolariak espreski eurentzako prestatutako obra kantatu zuten joan den ekainaren 16an. “*Oso ekitaldi garrantzitsua izan zen guretzat, Gorlizko herriari eskainitako lana da-eta. Kontu askoren gainean berba egiten du: jaiez, auzoez... Gambera orkestra eta piano batek lagunduta abestu genuen*”, kontatu du pozik Nieves Manzarraga abesbatzeko presidentek.
Abesbatza lagun artean sortu zuten, koadrila giroan. “*Orduan ez genuen ezta pentsatu ere egin hain urrun helduko ginenik*”, onartu du Nievesek eta mezatan abesteko elkartu zirela gogoratu du. “*Zuzendaria orduan musikaz apur bat zekien lagunetako bat zen: Loli Igartua*”. Halere, talde moduan hazi gura zuten, inguruetatik zebilen Valentziako musikari bat kontratatu zuten. “*Denboanagaz ordea,*

bere jaioterrina itzuli zen eta gaur egun Loli da gure zuzendaria berrio ere. Urteakaz prestakuntza jaso du zuzendari izateko”.
Atzerrian ere emanaldiak eskaini ditu Lirain abesbatzak: Espainia, Italia, Austria, Txekia, Frantzia... “*Gainera, uztaileko jaietan, habaneren jaialdia antolatzen dugu*

**«Belaunaldi aldaketa ez
dago ziurtatuta, gazteek
abesteari uzten diotelako»**

Gorlizen. Orduan ere, kanpoko hainbat abesbatza ekartzen ditugu gurerara. Aurten, esaterako, Miranda de Ebrotik datoz abesteara. Ondoren gu joaten gara eurengana”.
Gaztetxoenei ere parte hartzeko aukera eskaintzen diete Lirainekoek. “*Talde bi gehiago dauzkagu: bat gazteena, oso onak direnak; bestea umeena. Belaunaldi aldaketa, aldiz, ez dago ziurtatuta, gauza bategatik edo besteagatik abesteari uzten diotelako askok. Egoera apur bat latza da*”. ○



**TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra**

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15



URDULIZ

Teléfono: 940 701 126

**Ajuria
taberna**

Andrés Cortina 2

ALGORTA



Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493



VIEJO CAFE

kopak eta
giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

TXIPIO BAI BASORDAN
ZENTRAL TERMIKOA
EGITEAREN AURKA

Txipio Bai elkarte ekologistak Lemoizko Udalak Basorda inguruan zentral termiko bat martxan jartzeko baimena eman nahi duela salatu du. Pedro Jesus Botejara alkatea, Iberdrolarekin eta Meatze eta Energia Politikako Zuzendaritza Orokorrarekin kontaktuan egon dela uste dute, 850 megawatio izango dituen eta Lemoizko zentral nuklearreko lurretan eraikiko den zentral termikoarentzako baimenei buruz hitz egiteko. Horregatik, udalbatzar berezia deitzea eskatu dute. Botejarak, ukatu egin du kontaktuak egon direnik.

GORLIZ-BADIA TELEPIZZA
SARIA OSPATUKO DA
IRAILAREN 15EAN

Lehenengo Gorliz-badia Telepizza saria egingo da irailaren 15ean, *San Miguel 2007* traineru txapelketaren barnean. Traineru klubek elkartek (ACT) eta Gorlizko Udalak, hiru urteetarako akordioa sinatu dute. Horrela, ligako estropaden egutegia osatu dute, lehenengoa Pontevedran eta azkena Portugaleten izango direlarik. Ekimenaren bultzatzaileek, Kontxako banderaren errebantxa izatea gura dute, izan ere, iraileko lehenengo estropada izango da. Galiziako Cabo da Cruz eta Mecos, Kantabriako Castro Urdiales, Laredo eta Pedreña, Bizkaiko Arkote eta Urdaibai eta Gipuzkoako Hondarribia, Orio, Pasaia, Zarautz eta Zumaia traineruek parte hartuko dute aurten San Miguel ligan.

URDULIZ

Urdulizko biztanleak pozik ei daude udalerriagaz



Etxebizitza eta komertzio falta izan dira gehien aipatu diren gabeziak

Ikerfel enpresak telefono bidez egindako ikerketa soziologiko baten arabera, Urdulizko biztanleak pozik daude udalerriagaz. 600 elkarrizketa egin ziren, 18 urtetik gora-ko pertsonen artean. Emaitzek, %72 gustura, %26 oso gustura eta %46 nahiko gustura dagoela erakutsi dute.

Herritarren ardurei dagokienez, etxebizitza eta komertzio falta izan dira gehien aipatu direnak. Urduliztarrak baikor sentitzen dira herriaren etorkizunari dagokionez eta %56k uste du hurrengo bost urteetan

Urdulizen bizitzea atsegina izango dela. Gehien baloratu diren faktoreak ingurune naturala eta segurtasuna izan dira. Hala ere, etxebizitzaren prezioan, enplegu aukeraketan eta kirol eta kultura azpiegituretan gabezia dagoela aipatu dute elkarrizketatuek. Udalen egitasmoek dagokienez, %87k bazekien metroa lurperatzeko proiektua dagoela. %84k babes ofizialeko etxeak eraikitzeko asmoa dagoela ezagutzen dute. Azkenik, %33k Kultur Etxeak antolatutako ekintzaren batean parte hartu du. O

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114
48640 Berango, Bizkaia
Tel. 94 668 15 51
Faxa. 94 66829 92
e-mail: vasa@vasa.biz

Eka. 19 - uzt. 02

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Antzezaleak.**
Algortako erakustaretoa.
Ekainaren 30era arte. 10:00-13:00 eta 18:00-21:30.
► **Gizatiar elkartearen margolanak.**
Erromoko erakustaretoa.
Ekainaren 25etik 29ra arte.
11:00-13:00 eta 18:00-21:00.

LEIOA

► **Deialdi kolektiboa 07.**
Kultur Leioa. Uztailaren 1era arte.
10:00-14:00 eta 17:00-20:00.

SOPELA

► **Zirko paperak.**
Kultur Etxea. Ekainaren 28ra arte.

URDULIZ

► **Jaietako kartelak.**
Kultur Etxea. Ekainaren 29ra arte.

MUSIKA

ERANDIO

► **Musikaren II. Egun Europarra.**
Ekainak 22, eguena.

LEIOA

► **Korrontzi.**
Ikea Barri plaza. Ekainak 21, eguena. 23:00. Sarrera dohainik.
► **Sociedad Alkoholika.**
Txosna gunea. Ekainak 22, barikua. 23:00. Sarrera dohainik.
► **Basaki.**
Ikea Barri plaza. Ekainak 22, barikua. 00:30. Sarrera dohainik.
► **Euskal musika tresnak + batukada (La Txatunga).**
Barandiaran Bekoa Institutua. Ekainak 23, zapatua. 19:00. Sarrera dohainik.
► **Bisai, Deskiziadxs, Jarraitu.**
Barandiaran Bekoa Institutua. Ekainak 23, zapatua. 22:00. Sarrera dohainik.

► **Antzerkia**

Mi misterio del interior Kultur Leioan
Ekainaren 22an *Mi misterio del interior* ikuskizuna eskainiko du Ron Lala taldeak. Juan Cañas, Miguel Magdalena, Iñigo Etxebarria, Daniel Rovalher eta Alvaro Tato aktoreek “*autolaguntzako ikastaro azeleratua*” dakargigute Leioako Auditoriumera. Saio barregarri, abesti, testu original eta umore adimentsuz osatutako lan ikusgarria, guztia kabaret surrealisten eritimoan, ikusgai edukiko dugu “*bost omitorinko poloniarren*” eskutik. “*Ezagutu nazazu ni neu larialdi zerbitzura deituta, galdeiozu Kapikua Gizonari, eman ezazu izena Ortodoxo Anonimoetan edo jarrai jezaiozu kalapita berdeari... baina ez ezazu, inolaz ere, Merienden Aurkako Legea uratu*”.

• **Non:** Kultur Leioa • **Noiz:** ekainak 22 • **Ordua:** 20:30 • **Sarrera:** 12 euro

► **Seiurte, Basajaun.**
Ikea Barri Plaza. Ekainak 23, zapatua. 00:30. Sarrera dohainik.

Txosnak. Ekainak 30, zapatua. 00:30. Sarrera dohainik.

SOPELA

► **Gozategi.**
Plaza. Ekainak 28, eguena. 22:00. Sarrera dohainik.
► **Axut, Lehendakaris Muertos.**
Txosnak. Ekainak 28, eguena. 23:30. Sarrera dohainik.
► **Perfusion.**
Txosnak. Ekainak 29, barikua. 23:30. Sarrera dohainik.
► **Ras Reguilon, La Pulkeria.**

ANTZERKIA

ERANDIO

► **¿Dónde está el libro de Clara?**
Josu Murueta kultur etxea. Ekainak 27, eguaztena. 18:00. Sarrera dohainik.

LEIOA

► **Poxpolo, Mokolo ta Konpainia.**
Euskal Etxeen Plaza. Ekainak 22,

barikua. 20:00. Sarrera dohainik.
► **Xurdin eta Gorringo Lakuaeren Misterioa.** Euskal Etxeen Plaza. Ekainak 23, zapatua. 20:00. Sarrera dohainik.
► **Anne Mona, Oskola eta Karramarroi.** Euskal Etxeen Plaza. Ekainak 24, domeka. 20:00. Sarrera dohainik.

ZINEA

PLENTZIA

► **Los amos de Dogtown.**
Gazteentzako zinea. Goñi Portal. Ekainak 23, zapatua. 17:00.
► **Los chicos de la lluvia.**
Umeentzako zinea. Goñi Portal. Ekainak 30, zapatua. 17:00

BESTEAK

GETXO

► **Balkoitik balkoira.**
Algortako Etxetxu plaza (Portu Zaharra). Ekainak 22, barikua. 22:30. Sarrera dohainik.

LEIOA

► **Leioako jaiak.**
Ekainaren 21etik 24ra arte.

ERANDIO

► **Kukularrako jaiak.**
Ekainaren 22tik 24ra arte.
► **Txangoa mendira.** Gallanda (Soria). Ekainak 24, domeka. Antolatzaileak: Erandioko Mendigoizaleak.
► **San Trifon jaiak.**
Ekainaren 29tik uztailaren 3ra arte.

GORLIZ

► **San Pedro erromeria.**
Iberre. Ekainak 29, barikua. 18:30.

SOPELA

► **Sopelako jaiak.**
Ekainaren 27tik uztailaren 1a arte.

ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA




Payadoreak

Han egon zirenen memorian iltzaturik lotuko den bertsoaio gogoangarria eskaini zuten Paya anaiek eta Argentinatik etorritako Wilson Saliwncy payadoreak (inprobisatzailea) ekainaren 7an Algortako The Piper's Irish Pubean. Bertsoak euskaraz, euskaraz eta gazteleraz, eta gazteleraz eskaini zituzten berbaren maisu hauek aretoa bete zuten zale guztien gozamenerako. Esperientzia ederra payatarrak gazteleraz bertsoan zein ondo moldatzen diren ikustea.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





ARTEA (LEO), 2007

Spok Kapitaina

Asier Menteak

Antza denez, gurean ere ibili ei da batzuetan Spok Kapitaina *Enterprise* espaziontzian. Hain da polita Uribe Kosta estralurtarek ere ezin dutela etorri barik geratu? Aurreko egunean harriatu zuen argazkilariak “martzianoa”, eskualdeko supermerkatu batan erosketak egiten zebilela. Oroigarrien baten bila ibiliko zen agian?

[berbetan]

Konturatu zarete zenbat kantuk egiten duen berba AEKz edo, oro har, euskalduntzeaz? *AEK-ko beteranoak*, esaterako. Horietako bat dugu Mertxe Mujika, erakundeko koordinatzaile nagusi modura -“halaxe ageri da paperetan”, esan digu- lehenengo ikasturtea betetzear den elorriotarra. 22 urte, alegia, bere lan ibilbide osoa eta bizitza erdia baino gehitxoago daroaz “enpresan”, irakurri elkarrizketa eta ulertuko duzue zergatik darabilgun berba hori. *Eusko Jaurilaritzak dio dirurik ez dagoela...*, dio beste kantu batek. Diruaz ez gara jardun, bai ordea jaurilaritzez, eta horiek begirunez hartzen dutela AEK, dio Mujikak, urteetako lan onari esker. Lan hori, labur esatearren, gauza bi irakastean datzala ikasi dugu berbaldi honetan: euskaraz berba egiten, batetik; euskara maitatzen, bestetik, edo aldi berean. Berdin *paro obrero* daukatenei zein titulu bila baino joaten ez zazkienei. Guztientzat zabaldu gura ditu AEK-k euskara munduaren ateak, Aita Santuak horko giltzari izendatu barik ere. Maitasun kantua da, azken batean, euskalduntzearen eguneroko borroka.

Mertxe Mujika

Euskara munduko atezain

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Azken boladan, euskalduntzean da-biltzanakaz berbetan, beti krisia aipatzen da, gero eta jende gutxiago, ikasleak erakartzeko zailtasunak... Datuek zer diote?

—Nik ez nuke berba egingo gaur egun krisiaz. Esango nuke merkatuaren bir-moldaketa dagoela. Baina krisia ez. Gainera, uste dut askoz ere mezu baiko-rragoa eman behar dugula. Sarritan, oso mezu ezkorra ematen dugu. AEKren kasuan, eta udako aurreikuspenak kontuan hartuta, 10.000 ikasle inguru igaro-ko dira gure geletatik ikasturte honetan. Uste dut oso kopuru esanguratsua dela. Kontuan hartuta egunean gutxienez bi ordu eskaini behar zaizkiola horri, eta zelako eskaintza dagoen aisialdirako, ikasketak egiteko... Jendeak egiten duen hautua benetan eskertzekoa da, eta bai-korrak izateko modukoa. Egia da zenba-kiak, orain dela urte batzuk zeudenekin

konparatzen baditugu, beharbada txikia-goak direla, baina uste dut hori ere eus-kalategiok egin dugun lanari eta eskoletan euskal ereduek izan duten hazkundeari esker gertatzen dela. Ez dut esan nahi dagoeneko nahikoa dela, uste dut oraindik ere poltsa handiak daudela, euskaltegieta-ra erakarri behar ditugunak, eta horretan asmatzea erronka handia da guretzat.

“Ez nuke esango gaur egun euskalduntzean krisia dagoenik”

—Bitxia begitandu zait “merkatu” ber-ba aipatzea...
—Kar, kar...
—...euskalduntzea merkatuagaz pare-katzea, AEK sortu zenean esate batera-ko, ezin pentsatzekoa izango zen...
—Bai, baina uste dut eboluzioa eman dela. Sinistu egiten dut, eta horregatik nago AEKn, herri mugimendutik sor-

tuak garela, baina hori ez dago inondik inora kontrajarrita enpresa munduan era-biltzen den hiztegiarekin. Hori beste alde on bat da: gero eta sektore profesiona-lagoa gara. Ez dut esan nahi lehen ez gine-la! Nik ibilbide profesional osoa AEKn egin dut eta uste dut lehen ere profesio-nalak ginela, baginen. Baina gaur egun askoz ere profesionalagoak gara, baldin-

tzak hobetu direlako. Denok ikasi dugu, eta ikasi dugun hori AEKn sartzen diren kide berri guztiei ematen diegu. Bizi garen gizartean bizi gara, eta gu aldatzen garen moduan gure ikasleria ere aldatzen da. Lehen merkatu berba erabili badut zentzu horretan izan da: gure helburua alfabetatzea eta euskalduntzea izanik, jakin behar dugula gure merkatu berriak



non daduen, horiei begira ahalik eta eskaintzarik onena egiteko. Baina beti ere gure helburua zein den argi edukiz: Euskal Herria berreskuratzea. Eta horretarako hiru arlotan egiten dugu lan: irakaskuntza, erabilera eta sustapena.

—**Merkatu eta enpresa kontuakaz hasi garenez gero...** Egidazu eskaintzen duen produktuaren publizitatea.

—Beti esan dut lehenengo eta behin motibazioa behar dela euskara ikasteko. Eta beharra sumatu. Orduan, lehenengo aldiz gure euskaltegira datorrenak irakasle talde on bat topatuko du, oso ondo hezia, euskara irakatsiko diona eta gainera euskaraz bizitzen irakatsiko diona. Lehen esan dut irakaskuntza, erabilera eta sustapena direla gure esparruak. Gure ustez, ezinbestean elkarrekin lotuta dauden hiru elementu dira. Eta hori da saltzen dugun produktua: euskara ikasiko duzu baina ez bakarrik ikasi; era berean, euskaraz bizitzeko bidean ere lagundu egingo zaitugu.

—**Beti esaten da AEKn lan egiteko militantzia behar dela.** Eta hori profesionaltasunaren ikuspegiagaz ezkondu beharko da...

—Hala da. Ez da bakarrik euskara irakastea, transmititu egin behar da euskararenganako dugun maitasuna. Uste dut hortxe dagoela militantzia esaten dugun hori.

—**Ikasleak erakartzeaz berba egin dugu. Irakasleak lortzea erraza da?**

—Ez, kosta egiten da, baina une honetan arlo askotan gertatzen da hori, zaila da langileak topatzea. Aurreko batean, autoz nindoala, irratiz entzun nuen Deba Garraiko automozio sektorean ez daukatela jenderik, eta kanpaina bat hasi dutela horri aurre egiteko. Mila lekutan dago arazo hori. Gainera, AEKn lan egiteko euskaraz jakin behar da. Guk ere egiten ditugu kanpainatxoak, ikastaroak antolatzen ditugu... Zailtasunak dauzkagu, baina gaur da eguna oraindik ez dugula ikasle bat kanpoan utzi irakaslerik ez egoitegatik. Bide batez, elkarrizketa hau erabiltzen dut jendea animatzeko, AEK leku

polita da ibilbide profesionala bideratzeko.

—**Bai ba. Kanpotik ikusita, ematen du AEK-ko irakasleek ondo pasatzen dutela...**

—Gauza garrantzitsu bat daukagu: helduekin egiten dugula lan. Hau da, pertsonekin, ez da makina baten aurrean egotea bezalakoa. Badauka bere nekea, baina... Gainera, AEK-ko irakasleak beste mundu bateko ateak zabaltzen dizkie pertsona ho-

“Euskararenganako maitasuna transmititzean dago gure militantzia”

riei: euskararen inguruan dagoen mundu ezkutua. Eta hori aberasgarria da. Nik irakasle moduan eduki ditudan bizipen politenak horiek dira: ikasleak euskara mundura hurbiltzen diren momentukoak. Betiko adibide tipikoa da, baina bertso saio bat ulertzea, adibidez. Eta euskaraz ez badakizu, ez daukazu ulertzeko modurik...

—**Balio erantsi horrek bereizten ditu AEK eta beste euskaltegiak?**

—Horri garrantzi berezia ematen diogula da gure balore erantsia.

—**Etorkinak euskalduntzea duzue, gaur egun, erronka handia.**

—Urteotan, ez guk bakarrik, denek baidizik, etorkin=erronka esamoldea erabiltzen

“Urteetan egindako lanaren aitorpena jasotzen ari gara”

gabiltza. Eta gauzak egiten dira, hastapen ikastaroak antolatzen dira, hurbilpen ikastaroak... Baina hortik aurrera ezer gutxi egiten da. Dena dela, uste dut bide horiek ireki behar direla; etorkin bat hona heltzen denean, mundu honen berri izan behar du, eta integrazioarako oso bide egokia da. Kontua da 60 orduko ikastaroak izaten dituztela dohainik, eta hortik aurrera, etorkinak daukan arazoa gehiago da egu-

nero zelan jango duen eta ez euskara ikas-

tea. —Euskara ez da bizitzeko beharrezkoa. Ala bai?

—Kontua da guk noraino aitortzen dugun beharrezko izate hori. Tira, beharrezkoa? Beharbada Bilbon ez, beste leku batzutan bai. Aspaldi honetan, egunkaria hartu eta gero eta gehiagotan irakurtzen dut lan eskaintzetan, *se valorará euskera*. Bilbo Handian dauden enpresez ari naiz,

ez Gipuzkoako bihotzean daudenez bakarrik. Hori, orain dela urte batzuk, pentsaezina zen. Seinale bat da. Beraz, beharrezkoa? Beharrezkotzen hasita dago. Lan handia dago egiteko, baina ezin dugu ahaztu egin den guztia.

—**AEKn daramatzazun 22 urteetan, asko aldatu ikaslearen perfila?**

—Bai. Exijenteagoa-edo bihurtu da. Osagai ideologiko-sentimentuzko hori ez dago, baina uste dut guk egin behar dugula gero lan hori, benetan euskara maitatzeko bide hori. Sarritan esaten da: ikasleek tituluak behar dituzte, horren bila datoz. Ba bai, baina batzuetan gure lana da ikasle horri pentsaraztea: titulua bai, baina gainera zergatik ez euskaraz bizitzeko era-

bili ikasitakoa? Bertso saio batera joateko, edo euskarazko komunikabide bat irakurtzeko, edo lagunak egiteko. Hori gure lana da. Ikasle batek pausoa egin badu euskaltegira etortzeko, eta bere buruan titulua badago, titulua ere eskuratu beharko du, baina ea beste behar batzuk sortarazten dizkiogun.

—**Hala ere, asko dira hala doazenak?**

—Ez, ez.

—**Huts-hutsetik abiatuta ere, AEK-ko irakaslea euskaraz dihardu hasieratik...**

—Bai. Horrek ez du esan nahi erdara erabiltzea debekatuta dagoenik, baina komunikazio ardatza euskara da hasiera hasieratik.

—**Ikasle batzuentzat ezuste handi samarra izango da, gogorregia beharbada...**

—Bai, baina... Materialarekin, irakaslearen mimikarekin, testuinguruarekin... horrelakoekin moldatzen zara. Eta badiotsut, erdaraz zeozer esan behar bada batzuetan, esan egiten da. Kontua da ikasleak aurrera egin behar duela, eta eroso sentitu.

—**Autoikaskuntza ei dago modan, alegia, nork bere kabuz ikastea, eta AEK-k ere badauka sail bat horretarako. Diotenez, ohiko eskolakaz baino emai-**

tza hobeak lortzen dira...

—Nik ez daukat inongo azterketarik hori horrela dela esateko.

—**Hala ere, etorkizuneko ikaskuntza izango da autoikaskuntza?**

—Ez dut uste. Egia da eskaera hor dagoe-la, gorantz egiten, apal. Galdera hau orain dela bost urte eginez gero, baietz erantzungo nizun, zalantza barik. Baina gaur egun ez nuke hala esango. Besteak beste, euskararen kasuan behintzat beharrezkoa da taldearen interakzioa. Eta mintzamenari garrantzi handia eman behar zaio. Guk badaukagu autoikas-kuntza lerroa, bai, baina bere neurrian.

—**Daukazun ardura edukita, behin baino gehiagotan egokituko zaizu moketak zapaltzea eta bulego dotoretan egotea.**

—Bai, batzuetan bai, hori ere egin beharrekoa da eta. Lan egiten dudanean saiatzen naiz gustura egiten, eta tokatzen bazait moketa zapaltzea, egin egiten dut, gustura, uste dudalako egingo dudanak onura ekarriko diola ordezkatzten dudan erakundeari. Ez dut neure burua ordezkatzten, pisu handia daukan erakundea baino, eta errespetu horrekin jokatzten dut. Bai moketa zapaldu behar dudanean bai bestelako lekuetan.

—**Eta zelan hartzen dute moketadunek AEK?**

—Oso ondo. Urteetan egin dugun lanaren aitorpena jasotzen ari garela esango nuke. AEK-k beti erakutsi du serio egiten duela lan, eta ez da oso polita neuk esatea, baina bere pisua dauka euskalgintzan. ○

aldizkaria etxean jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....
Kalea & zenb.....Herria.....
e-mail.....Telefonoa.....

Urtero ☐ 20 euro ☐ 30 euro ☐ 50 euro ☐ beste kopuru bat euro
Kontu zenbakia (20 digito).

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria
171 posta kutxa / 48991 Getxo
uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37




Portu zahar-zaharra

Orrialdeotara ekarri ditugun argazkiak, askotan egiten dugun bezala, Getxoko Udal Liburutegiko Argazkien Artxiboa arakatzeko aurkitu ditugu. Zahar-zaharrak dira eta behar besteko kalitatea ez daukaten arren euren balio dokumentalagatik argitaratu behar genituela argi ikusi dugu; izan ere, ederto erakusten dute 1900 aldera Algortako arrantza giroa zein zen. Irudi hauek Ramon Intxaurtieta jaunak Udal Artxiboaren esku utzi zituela ere jakin ahal izan dugu.

Argazkiak: **Getxoko Udal Liburutegia**









zine**eskola**

Oskar Fernandez

Inkisizioa, Buñuel eta Naillesko Bizkondea

Eliza katolikoak, sortu zenetik, gizakiengan oso konfiantza gutxi izan duela adierazi izan du beti. Erakunde horren ezaugarri garrantzitsuenetariko bat pentsamendu libreari trabak, oztupoak eta mugak ipintzea izan da. Beste bat, aurrekoa bezain inportantea ere badena, epailearen lana betetzea izan da eta horrela jokatzeko jarraitzen du gaur egun ere. Zinemarekin ez zuen inolako salbuespenik egingo eta hasieratik oso zorrotz begiratu eta izurritea izango balitz bezala tratatu zuen. Atlantikoaren ertz bietatik dezentzia erakundeak eta moral publikoko erakundeak ere nonahi, perretxikoak bezalaxe, sortu ziren. Erakunde hauek guztiek, katolikoak, intoleranteak eta zazpigarren artearekiko zeharo analfabetoak, zinemagintzan aritzen zen jendeari min izugarri handia egin zioten. Naillesko Bizkondea arte garaikideko oso pertsona zabala zen eta sentsibilitate handia adierazten zuen. Mezenas bat izan zen. Calanda herrian jaiotako zinemagile handia eta bikainarekin oso harreman ona zeukan eta Luis Buñuelek burutu zituen bere lehenengo lanen ekoizlea izan zen. Berak *Txakur andaluziarra* bikoiztu zuen. Laburmetrai hau surrealismoaren film hoberena bihurtu zen. Baina Parisko Artzapezpikua, Verdier Kardinala, sutan jarri zen antza eta publikoki eskumikatu zuen Naillesko Bizkondea. Parisko elizbarrutiko artxiboetan, 1930eko abenduaren 30ean Naillesko Bizkondeak aipatutako kardinalari igorritako eskutitza kontsulta daiteke. Eskutitzak, nolabait, Bizkondearen nortasuna eta adimena islatzen du. “... *filma ikusi dudanean harrigarria iruditu zait eta pixka bat eroa, baina inondik inora eskandalua sortarazteko*”.

Filmategiaren edukia

Pasa den urtean 514.020 metro pelikula jaso zituen; 1.241 film luze eta 688 labor dauzka

Euskadiko Filmategiak 30 urte beteko ditu datorren urtean; Peio Aldazabalek, Juan Jose Almuedok, Jose Luis Basocok, Nestor Basterretxeak eta Jose Manuel Gorospek Euskal Herriko ikus-entzunezkoen arloko ondarea osatzen duen materiala gordetzeko beharra antzeman zuten orduan. Ordutik, Euskal Herriko ikus-entzunezkoen oroitzapenak gordetzen eta ikertzen jardun du Filmategiak. Donostiako Tabako Fabrikan egoitza daukan euskal artxibo zinematografiko bakararren helburuak hauek dira: *“Zinema oro har eta euskal zinema bereziki aztertzeo interesgarriak diren filmak edo ikus-entzunezkoak ikertu, berreskuratu, artxibatu, gorde eta erakustea, baita kulturaren edota historiaren ikuspuntutik gordetzea komeni*

«Zinemarako lanak, film laburrak, partikularrenak... eta abar luzea daude bertan»

den agiriak eta material teknikoa bildu eta zaintzea ere”. Euskadiko Filmategiak 600 metro filmekin hasi zuen bere ibilbidea, orain ia 5 milioi metro dauzka euskarri zinematografikoan eta 17 milioi metro euskarri bideografikoan. Iazko urtea opa-roa izan zen Filmategiarentzat 514.020



Informazio gehiago: www.filmotecavasca.com

metro pelikula jaso zituen-eta, oro har gaur egun 1.241 film luze eta 688 film laburrek osatzen dute bere funtsa. Zinemarako egindako lanak, film laburrak zein partikularrenak ere gordetzen dituzte Filmategian; horrez gainera, Donostiako Zinemaldiko eta ETBren materialak ere jasotzen dituzte. Elkarte kultural izatetik fundazio bihurtu den filmen biltegiak orain dema polita dauka egiteko: apurka funtsak euskarri digitalean ipintzea, horretarako “puntako tresneriaz hornitu” dira. Filmategiak badu herritarrentzat zabalik proiektzio gela, funtsak edozeinek ezagutu ditzakeelako. ○

Ez galdu > Half Nelson



Zinema amerikar independentean kokatzen da istoriotxo hau eta Ryan Fleck-ek zuzendu duen lehenengo film luzea da, sari ugari jaso dituen. Pelikularen protagonista Brooklynen institutu irakaslea da. Fleck-ek kontatzen digun istorioak berezitasun nabarmena du: arazo larria duen pertsona ez da ikaslea, irakaslea baizik. Ryan Gosling (Dun Dunne) irakasle gazteak drogarekiko menpekotasun handia du, baina inor ez da konturatu. Berak ematen dituen klaseak erakargarriak eta interesgarriak dira ikasleentzat. Lanean dagoen bitartean pertsona arrunta da; ikastetxetik kanpo bere bide pertsonal latza eta gogorra jorratu behar du. Egun batean bere ikasle batek, institutuan bertan, lurrean botata topatuko du. Aurrerantzean gauzak ez dira berdinak izango ez bata ezta bestearentzat ere.

Laia taldea

Izenbururik gabeko istorioak beraien lehenengo lana **laster** kaleratuko du Baga-Bigak



Harremanetarako: <http://myspace.com/laiarock> edo 665 705 715

Mungiako institutuko kulturarteko jaian emanaldi bat egiteko asmoz landatu zen Laia taldearen hazia orain dela 3 bat urte, *“Berri Txarrak, System of a down... eta antzeko taldeen bertsioak jo genituen”*, akorduan dauka Bernat taldekideak. Hainbat arrazoi medio taldearen osaketa hazi eta aldatu egin da eta gaur egun hurrrengoak dira taldekideak: Juanmi Abal (ahotsa eta gitarra), Unax Nogales (baxua), Igor Bilbao (gitarra) eta Bernat Barcena (bateria). Bizkaitar eta gipuzkoarrez osatutako laukoteak Berri Txarrak taldearekiko zaletasuna onartzen du eta horiekaz batera beste talde batzuek ere badute euren rock estiloan eragina, berbarako: Thrice, Kauta, In-

cubus, Fjord, My chemical romance, Biok, Muted, Anestesia, Dikers, Rise Against, La-boa... Talde horietako batzukaz jotzeko aukera izango dute Bilbao BBK Live jaialdi entzute-tsuan (ekainak 29, 17:00) eta hurrengo kontzertua Mungian emango dute (uztailak 6). Estreinako diskoa noiz plazaratu zain daude Laiakoak, *“honezkeroko kalean egon behar luke, udarako-edo argitaratuko dela uste dugu”*, azaldu du Bernatek. Baga-Biga zigiluak banatuko du *Izenbururik gabeko istorioak* (azken aldaketarik ezean). 12 bat kantuko lanak *“aldizkarietan inakur daitezkeen gaiak jorratzen ditu, egunerokotasunaren gainekoak, eta badira bizpahiru amodiaren ingurukoak”*, dio Bernatek. ○

dis**koak**

Send away the tigers
Manic Street Preachers
Columbia



Orain dela 15 urte bere ibilbidea hasi zuenetik, Galesko taldeak kaleratzen duen zortzigarren bilduma da *Send away the tigers*. Handi egin zituen soinura itzulera da lan berria, baina gaur eguneko rockaren elementuak ahaztu barik. Diskoak hamar abesti berri dauzka eta *Your love alone is not enough* lehenbiziko singlean The Cardigans taldeko Nina Perssonengaz datoz.

Urkamendi blues
Sexty Sexers
Gaztelupeko Hotsak



2001ean taldea Ameba bezala bataiatu bazuten ere, Sexty Sexers izenpean 2005eko ekainean eman zuten lehen kontzertua. Ordutik boskotea ez da geldirik egon eta 60 kontzertu baino gehiago eman dagoeneko. Punrocka eta rock izerditsua zure gustukoa baldin badira, hemen daukazu zure taldea. Disko berria aurkezteko plazaz plaza ibiliko dira Nafarroako lagunak.

Vuelos
Rogelio Botanz
Gaztelupeko Hotsak



Jaiotzez Legazpikoa bada ere, aspalditik Kanariar Irietan bizi da Rogelio Botanz eta bertako musikaren enbaxadore bihurtu da mundu osoan zehar, Pedro Guerra eta Andres Molina bezalako artistakaz batera. Gazteleraزو espresabidea, batzuetan guantxe eta euskaragaz ordezkatzeko du. Bere azken lana da Vuelos eta bertan musikari lagun ugari parte hartu dute.

BERDINEAN

Euskaraz

Elige en euskera

UMEZAINZAILE EUSKALDUNAK

Behar ditugu

BUSCAMOS CUIDADORAS/ES EUSKALDUNES DE NIÑOS/AS

Inscripción: PARA ZERBITZUA

KIROL BEGIRALE EUSKALDUNAK

Behar ditugu

BUSCAMOS MONITORES/ES DE DEPORTE EUSKALDUNES

Inscripción: PARA ZERBITZUA

AISIALDIKO BEGIRALE EUSKALDUNAK

Behar ditugu

BUSCAMOS MONITORES/ES DE TIEMPO LIBRE EUSKALDUNES

Inscripción: PARA ZERBITZUA

AURKEZLE EUSKALDUNAK

Behar ditugu

BUSCAMOS PRESENTADORAS/ES EUSKALDUNES

Inscripción: PARA ZERBITZUA

KLASE PARTIKULARRA EMATEKO JEND EUSKALDUNA

Behar ditugu

BUSCAMOS PERSONAS EUSKALDUNES PARA IMPARTIR CLASES PARTICULARES

Inscripción: PARA ZERBITZUA

Euskara zerbitzua

Leioako Udala

Argibide gehiago

EUSKARA ZERBITZUA

Kultur Leioa

4. solairua

T. 94 607 25 76

BFA OFE

Leioako Udala

[liburuak]

Arrastoaren bila, berriro

Itxaro Bordak Amaia Ezpaldoi ikertzaile zuberotarra berpiztu du lan berrian

Zortzi bat urtez Amaia Ezpeldoiren arrastoa jarraitzeari utzi ostean “plazer askorekin” itzuli da Itxaro Borda (Baiona, 1959) detektibe zuberotarraren urratsetara, eta oraintsu plazaratu du Susa argitaletxeagaz *Jalgi hadi plazara* nobela berria.

Nobelako 218 orrietan barrena Ezpeldoiren lehenengo abenturatik azken honetara aldaketa nabarmenak antzemango ditu irakurleak. Zuberotarrak bere jaioterriko inguruak eta euskalkia zelanbait alboratu eta istorioaren pasarte gehienetan hirian, Bilbo handian oro har (baita Gasteiz, Baiona, Bardeak...) ibiliko da eta darabilen euskara ere batutik hurbilago dago; Bordaren esanetan “*mundu oso bat da uzten duena atzean*”. Halere, bidean antzinako kontuak, mamuak eta lagunak aurkituko ditu detektibeak. Aurreko lane-

«**Jalgi hadi plazara**
Itxaro Bordaren lanik
zinematografikoena da»

tan ez bezala, azken honetan bere homosexualitatea baieztatu egingo du ikertzaileak antzinako maitale bategaz topo egiten duelako. Gexan Hiriart euskaltzainaren (iparraldeko idazle eta euskaltzaleren bat



Argazkian, Itxaro Borda

gogora dakarrena) desagertzea ikertzera doa Bilbora Ezpeldoi, euskaltzainaren desagertzea da Iparraldean galtzen dabilen idazteko eta berba egiteko moduaren sinboloa. Abentura berri horrek aurreko hirurek baino mugimendu handiagoa, ekintza gehiago dauka, lehenengo biderrez hilotzak agertuko zaizkigu, eta berez, lanik “zinematografikoena” dela adierazi du Bordak. Ironia eta umorea ez zaizkio falta, ezta Bordak berezko duen erromantizismo eta melankoliarako joera. *Requiem* da liburuaren azpititulua eta musikara garamatza horrek, Mozartengana zuzenean, eta liburuko atalak ere Salzburgokoaren lanaren arabera antolatu ditu Bordak; oster, ohi legez, ez dira liburuko doinu bakarrak (Itoiz, Herztzainak, Sinead O’Connor...) o

liburuak



Mendiminez
Ramon Olasagasti
Elkar

Azken urteotan mendian zendu diren hainbat mendizalaren ibilbidea eta biografia jasotzen da lan honetan, omenaldi moduan. Honako hauek dira liburuko protagonistetako batzuk: Felix Ihurrategi, Jose Luis Zuloaga, Atxo Apellaniz, Miriam Garcia, Xabier Ormazabal...



Euskal Hiztegia
Ibon Sarasola
Elkar

Euskal Hiztegiaren bigarren argitaraldi honetan, 1996ko lehen edizioaren testua berridatzi egin du egileak. Euskaltzaindiaren arauetara eta Hiztegi Batura egokitzeko. Hartutako lanaren ondorioz, bigarren argitaraldi honek 2.500 sarrera berri ditu.

[kirola]

IV. Saskibaloi kanpusa

Hiru txandatan banatuta **hilaren 25etik**
uztailaren 13ra bitartean egingo da, euskaraz



250 haur inguru hartuko dute parte kanpusean

Getxo Saskibaloi taldeak laugarren urtez antolatuko du Saskibaloi Kanpusa Andra Mari ikastetxeko kirol eremuan. Ekainaren 25ean hasiko dira lehenengo txandako umeak eta gazteak, bigarren txandakoek uztailaren 2an hartuko diete lekukoa eta azken txandakoek uztailaren 9an daukate hitzordua (txanda batean baino gehiagotan ere eman daiteke izena). Izena emateko epe muga zehatzik ez dago, baina txanda bakoitza hasi baino lehen egin beharko dute. Getxo Saskibaloi taldeko Prisco Fernandezek adierazi duenez “*iaz 4 txanda egin genituen, baina azkenekora jende gutxiago joan zenez, aurten kentzea enabaki du; halere, batez beste 80 ume izan ziren txanda bakoitzean; aurten ere azken urteetan umeek gogoko izan dituzten jarduerak prestatuko ditugu, eta berbarako, gurpildun aulkiko saskibaloi jokariak ekartzen ahaleginduko gara, esperientzia polita izan da*”. Jarduerak astegunetan emango dira eta ordutegi jarraia izango dute (9:30-17:30). Adinaren arabera jarduerak prestatuko dituzte antolatzaileek, hala 6-8 urte bitartekoek basket txiki mailan jardungo dute, 9-

10 urtekoek mini basket aurreko mailan, 11-12 bitartekoek mini basketean eta 13 urtekoek haurren mailan.

Ekimenaren helburu nagusia saskibaloian jokatzera bultzatzea bada ere, badu beste gehigarri berezi eta beharrezko bat: eskolak eta jarduerak euskaraz egingo direla. Antolatzaileek azaldu dutenez, Kanpusean hurrengo jasoko dute umeek: “*Esperientzia handiko prestatzaileek saskibaloian erakutsiko diete ikasleei eta horrez gain, parte hartzen duten guztiek kirol arropa, janaria eta askaria izango dute; baita erantzukizun zibileko aseguruia ere*”. o

Datu batzuk

- **Txandak:** Lehenengoa: ekainak 25-29; bigarrena: uztailak 2-6; hirugarrena: uztailak 9-13
- **Ordutegi jarraia:** 09:30-17:30
- **Non:** Andra Mari ikastetxean
- **Norentzat:** 6-13 urte bitartekoentzat
- **Prezioa:** 110 euro txanda batek pertsona bakoitzeko, 300 euro hiru txandak egin gura izanez gero.
- **Informazio gehiago:** www.getxosaski.com

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l. SERVITEC

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

☎ 94 430 52 00 Kasune, 18 · ALGORTA

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Gorka Vazquez > irudigile eta errealizadorea

“Ezinezkoa da ni hemen lasai-lasai egotea eta Ben Ladenek nire pelikula izorratzea!”



Fitoren azken bideoklipa zuzendu du Gorka Vazquezek, argazkian eskuinean

Ziurrenik “Gorka Vazquez” izena ezagun egingo zaizue. Bai, halaxe da, bera da aldizkariko *Matematika aplikatua* izenburudun komikiaren egilea. Halere, gatxa da Gorka bere zereginagatik definitzea; izan ere, irudigileaz gain, bideoklip eta laburmetrai zuzendaria ere badelako. Bere azkeneko proiektuak? Disneyrako *Lola eta Virginia* marrazki bizidunen ekoizpenean parte hartzea eta Fitogaz bideoklipa grabatzea.

—Irudigilea ala errealizadorea?

—Momentu honetan diseinatzaile grafikoa gehiago. Hori da gehien egin izan dudana. Bideo gehiago egiten ditudanean, orduan errealizadore bilakatuko naiz. Arte Ederrak ikasi nituen, ikus-entzunezkoak. Marraztea gustatzen zitzaidalako sartu nintzen bertan eta berehala pentsatu nuen horretaz ezin izango nintzela bizi. Baina barruan daroazun zeozer da eta lagunakaz laburrak egiten hasi nintzen. Ikasketak amaitutakoan *Amor de madre* laburra grabatu nuen Koldo Serragaz. Gure lehenbiziko lan garrantzitsua izan zen. 35 mm-tan egin genuen, zineman egiten

den legez.

—Film luze bat egiteko aukera galdu ze-nuen, ezta?

—Bai. Kide askoren artean burutuko genuen, baina azkenean ez zen irten. Proiektua aurrera eroateko dirua New Yorketik zetorren, baina irailaren 11n Dorre Bikiak eraitsi zituztenez, dirua ez zitzaigun heldu. Nik zera pentsatu nuen: “Ezinezkoa da ni hemen lasai-lasai egotea eta Ben Ladenek nire pelikula izorratzea!”. Ezin nuen sinestu. Orduan diseinu grafikoa sartu nintzen.

—Baina orain marrazki bizidunakaz behar egiten duzu.

—Madrilen nago joan den urtetik, *Lola eta Virginia* marrazki bizidunetako telesailean lanean. Gure lana hainbat katetan ikus daiteke, tartean, Disney eta ETBn. “Ze ondo!” esaten dizu jendeak, baina beste lanen antzekoa da.

—Jendeak ez al du pentsatzen marrazkiena zinemaren genero txikia dela?

—Publikoaren araberakoa da hori. Nik ere ez dut ulertzen askorik mundu honetaz, etorri berria naiz eta. Baina Pixarren filmak 3Dn ikaragarriak dira! Halere hemengo batek pelikula sinpleago bat erakusten badi-

«Fito oso tipo atsegina da, arrunta. Ez dator zuri potroak jotzera»

zu, ez zaizu gustatuko. Hori dela-eta, guk telesailak egiten ditugu; onargarriagoa da eta gustatzen zaigu.

—Eta Fitori egin diozun bideoklipa?

—Orain dela hil batzuk, Fitoren birarako kreditu-tituluak egin nituen marrazki bizidunakaz, animatzailea ez naizen arren. Asko gustatu zitzaion Fitori eta Madrilen eman zuen kontzertu batean ezagutzeko aukera eduki nuen. Ondoren bideoa grabatzea proposatu zidaten. Deustun egin nuen, Sayaka ekoiztetexearen laguntzaz, Botika Zaharreko lantegi batzuetan.

—Zelakoa izan zen tratua beragaz?

—Oso tipo atsegina da, arrunta. Ez dauka bere burua izartzat eta ez dator zuri potroak jotzera, orduan, konfiantza ematen dizu eta oso ondo behar egin dezakezu. Gainera, oso pertsona dibertigarria da.

—Zeintzuk dira zure etorkizuneko proiektuak?

—Marrazki bizidunetako beste telesail bategaz hasiko gara orain: *Sandra detektibea*. Beste urte birako ekoizpena izango da, beraz, oraingoz Madrilen geratu beharko naiz. ○

Testuak eta irudia: Xabi Bilbao

Esakere > “Bristi-brasta egin dau dana”



Gauza batzuk astiro egiteko direzela entzuten dogu sarri. Eta egi da danok geldiro egiten doguzela gauza batzuk, baia kontu da eztozuzela danok gauza bardiñek lasai eta denporagaz hartzen: bat bizkor dabil automobilan ta beste lasai; batek esne tragutxu armosa ta badoa karraderan, bestek goxa erdi behar dogu espabilateko... Gure gizarte hau abiadeko gizarte dala diñoskue, baia pentsa lei ondiño ezkarala guztirik sartu abidan: eskerrak eztozule dana bristi-brasta egiten!

Esakera hau R.M. Azkuek baturiko da, eta beran “Euskalerriaren Yakintza” behar handin topako doze.

Gure**berbakere**98

ZELAN ESAN

Berbetari lagunduteko (5)

Berbakere 90en eta 94en alkarrizketa erdiko berba eta esakeratxu batzuk ikusi genduzen, berbete erraztuteko eta lagunduteko erabilten direzenak. Gaur era horretako berba batzuk gehiago ikusiko doguz, eta honekaz berbokaz akabako dogu gai hori oraingoz.

Zeozen arrazoia esateko erabilten direzen egiturek

-lako(n): Eztotset ulertu agoa beterik egin **dauleko** berba.

ta: Kuadruk abstraktuk pintaten dauz **ta**, bat bere saldu eziñik dabil.

ze: Klaruago berba egiteko eskatu dotset, **ze**, enei ulertu zer diñon.

-lez: Kuadruk hain abstraktuk egiten dauzen **lez**, beharra deko gero esplikateko zer direzen.

-tearren / -tearrik: Bokadu bet ez galdute**arrik/tearren** kapaz da afari guzti berba egin barik pasateko.

Horreitik: Telebisiñori adi daule pintaten dauz kuadruk, ta **horreitik** urteten dakoz hain arraruk.

Esan dogune atzera esan eta indertuteko

Lehengo barriro esanta, artiste batzun probleme da abstraktukeri lar erabilten daudela.

Lehen esan dotsuten lez, ezer saldu eziñik dabil, ze eztauz iñokerosten beran kuadruk.

Beste era batera esanta, martxa honetan goseaz hilko da, ze kuadrukez eztoa iñora.

Ta kontuten hartu, jentek etxen gehiau iminten dauzela posterrak eta erretratuk kuadruk baño.

Ta gehiago ondiño, oingo ordenadorakaz eta aparatutxukez norberak egin leiz postertxu politiek.

Ta ganera, horrer eziñ leio esan estilo kanbiateko, ze kapaz da kaballetkaz burun emoteko.

Seguru gagozela adierazoteko

Argi ta garbi dago (dau) eztaule ulerkuntze handirik pintore modernun eta publikun arten.

Ta eztago zer esanik, dirun ganera berba egin ezkeron ondiño ulerkuntze gitxiago daule.

Bisten dago gauzak apur bet kanbia direzela Santimamiñeko pinturetatik hona, **horretan eztau duderik**.

Baia eztiyez guztirik kanbia, ze askok gunago dogu bisonte plateran ikusi pinturen baño, **horitxe da egi santu**.

I

Iñakí
Bitxítegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 430 23 45
Telletxe 1 T: 460 27 41

Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behea eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T: 4607084

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



gaizka escudero / basalbokoa

Krepinetak

pikillozko saltsan

Krepinetak barazki hostoz (aza, letxuga, zerba...) inguratutako bilduak dira. Guk hauek betetzeko barazkiak eta txarripatak erabiliko ditugu. Hasteko ipini zartaginean, su eztian, barazkiak (tipula, porrua, azenarioa, piper berdea eta perretxikoren bat) txiki-txiki zatituri. Guztia potxatu arte sutan eduki. Hau guztia aurretik egositako txarripata txikituekin nahastu. Bestetik, aza hostoak osorik urgazitan bost minutuz egosi. Ondoren hostoak aurretik egin dugun masa antzekoarekin bete (ikusi beheko argazkia). Bestetik, pikillozko saltsa prestatuko dugu. Horretarako patata eta tipula urgazitan egosi, ondoren pikilloekin nahastu, eta gero, hau guztia txinotik pasatu. Aurkezpenarako, ipini saltsa platerean eta gainean egin ditugun krepinetak. On egin! o

osagaiak (lagun birentzat)

- lau aza hosto • tipula bat • piper berde bat • porru bat • azenario bat
- txarripata bi • pikillozko hiru piper • patata bat



itsaso arana / jolastokikoa

Sangiovese

mahatsa

I taliako ardaorik estimatuenak, gehien edaten direnak Chiantin daude, Toscanako bihotzean. Chiantiko mendiskak Florentzia eta Siena artean daude. Euren ardaoak izendatzeko Chianti izena sei eskualdek erabiltzen badute ere, Chianti Classico deitzen dena da onena. Orain dela urte batzuk krisialdia ezagutu zuten ardao hauek baina 80ko hamarkadatik aurrera berpiztu ziren. Inguru horietan *syrah* eta *malvasia* mahatsak asko landatzen badira ere, zalantza barik garrantzitsuena *sangiovese* da, oinarritzkoa chianti ardaoak egiteko. Sangiovesek ematen dituen ardaoak kolore apalekoak izaten dira (laranjara jotzen duen kolore gorrixkadunak), aroma aldakorrak (larrosak, te lehorra..) izaten dituzte baina gehinetan lur zaporea azaltzen da. Bestetik aipatu behar da sangiovese eta cabernet sauvignon nahastuz puntako ardaoak egiten direla. o



Mendibile jatetxea

Euskal gastronomia leku ederrean



Argazkian, Jose Migel Gallastegi Zabala

Mendibile auzoan eraiki berri duten Txakolinaren Museoa dago Mendibile Jatetxea, leku ederrean. Eraikinaren eta inguruaren xarmaz maiteminduta, Basaurin zeukan Politena jate-txea utzi eta Leioaratzeara erabaki zuen Jose Migel Gallastegik. Martxoaren akabuan zabaldu zituen ateak, lokala atontzeko lan gogorra egin ostean: “Hogei egunetan, dekonatu, baxera diseinatu, langileak kontratatu eta hauentzako jantziak enkargatu behar izan nituen”. Museoaren instalazioak erabil ditzake eta horrek bilera jendetsuak antolatzeko aukera ematen dio: “Guztina, 500 pertsona sar daitezke hemen”.

Jatetxearentzat bereziki diseinatutako ardao karta daukate, beste askoren artean, Bizkaiko Txakolina eta Araba eta Gipuzkoako ardao onenak biltzen dituen. Janariari dagokionez, betiko sukaldaritzan oinarritutako plater bere-

ziak dituzte: “*Sasioan-sasoiko produktuak erabiltzen saiatzen naiz beti, merkatuan erositakoak*”. Zigala erre saltsa alaian, azpizuna foie-grasegaz, makailao entsalada... arrakasta handia izan dute orain arte eskaintako errezetek: “*Zigala osorik atentzen dugu, bezeroak atzamarrik miazka ditzan. Horrelako gauzeekin probokatzea gustuko dut*”. Udarako 80 pertsona hartu ahal izango dituen terrazara atera nahi dute kalera. Honetan, eguneko menua emango dute, baina horretarako dena ondo antolatu behar da lehenengo: “*Oso zaila da zerbitzari onak aurkitzea*”.

Orain arte oso ondo erantzun du jendeak: “*Inguru honetan kalitateari garrantzi handia ematen zaio eta hori asko nabaritzen da. Ez da prezioa horrenbeste kontuan hartzen*”.o

Mendibile 42, LEIOA / Tel.: 94 400 06 66



ARTAZA ETXEA
jatetxea
• gozariak
• txuletoia • makailua
• arrain freskuak

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



Asador Goiezt



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak normberaren gustura
 - Egunero karta berezia
 - Gauzez dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
 - Jaun hartze bazkariak zure gustura prestatzen ditugu.

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?
herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!
Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Zurikaldai
JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO

CAFE **Usategi** ALGORTA
Usategi parkea z/g - Tel. 94 460 64 13

KONTXI ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!
Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93

G gOZOLABEA
galdaretxe
• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA

Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21

ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA

- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)

T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN

“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa”

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarreniak

Orduña Mendatea 1

T: 430 22 13

GETXO

Telletxe 13

T: 460 02 88

ALGORTA

etorri eta ikusi!!

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)

Tfn.: 94 491 23 79

Algorta


Zure publizitatea hemen

Zure publizitatea hemen

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

[horoskopoa]

URA  (Abenduak 21 urtarrilak 19) Gorde itzazu erreziboak, isunak eta antzeko paper guztiak. Beharko dituzu. Ez dakigu zergatik baina badirudi zeure izena lagunen memoria kolektibotik desagertuko dela. Kontuz, erakundeek dirua eskatuko dizute.	OTSOA  (Urtarrilak 20 otsailak 18) Denean beti irabaztea ezinezkoa denez, noizbait galtzea ez zenuke txartzat hartu behar. Espiritu lehiakor hori baretzen saiatu beharko zenuke, lasaiago biziko zinen-eta. Ez zalantzarik izan, kasu egidazu!	ADARRA  (Otsailak 19 martxoak 20) Inguruko enagin txarretatik urrundu, ez zaitez ergela izan, ekaizta dagoenean onena porturako bidea hartzea izaten da. Denbora gehiago eskaini zeure buruari eta zure lagunak ondo aukeratzeari.
AITZURRA  (Martxoak 21 apirilak 19) Sasoi bete-betean zaude eta gainera harremanetan ederto moldatzen ari zara azkenengo bolada honetan. Zoritzarrez, zure gastuak kontrolatzen hasten ez bazara, diru kontuetan gauzak oker daitezke.	HOSTOA  (Apirilak 20 maiatzak 19) Lan egiteagatik ez da ezer gertatzen. Gainera behar duzun dirua irabazteko modu bakarra izan daiteke. Bestela, ez daukazulako, ez negarrik egin. Maitasunari dagokionez, garai latzak datozkizu.	EGUZKIA  (Maiatzak 20 ekainak 18) Zorte handia izan dezakezu datozen egunotan. Kontua ez da espaloian bostehunekoa aurkitzea. Gauza askoz garrantzitsuagoei buruz ari gara hizketan. Etorkizuna argituko duten gauzez, alegia.
GARIA  (Ekainak 19 uztailak 18) Maite zaituen horrek, malko bat baino gehiago isuraraziko dizu. Kontuz beraz zure bikotearekiko harremanetan. Bestelakoan, sasoi bete-betean zaude: osasuntsu, baikor... Bizitza gozatzeko prest. Zure esku dago...	LASTOA  (Uztailak 19 abuztuak 17) Lagunekin asmo berri horien planak aurrera ateratzea merezi du, ongi ateratzeko aukera handiak daude eta. Zure gehiegizko jarduera horien arteko oreka lortzen baduzu ondo ibiliko zara.	IRATZEA  (Abuztuak 18 irailak 16) Gaizki ulertuek ondorio latzak ekar ditzakete; erne zure bikoteakidearekin harremanak txarrera egin dezakeelako. Baztertu zure zeurekoikeria hori eta gauzak bere onera etorriko dira berriro.
META  (Irailak 17 urriak 16) Espero zenuena laster ala berandu iritsiko da baina ez zaitez hain urduri jar, laguntxo. Ikusiko duzunez, gauza bakoitza bere unean dator. Itxaron besterik ez duzu egin behar.	HAZIA  (Urriak 17 azaroak 15) Oso aukera polita diru kontuetarako, hau da, erosi, saldu, inbertitu, maileguak burutu, burtsa... denetan emaitza ezin hobeak izango dituzu. Ezin aukera hau galdu!	NEGUA  (Azaroak 16 abenduak 20) Oso jarrera polita erakutsi duzu azken aste hauetan. Egutero hartzen duzu dutxa, zeure gauzak txukun eta garbi daukazazu. Gauza bakoitza non daukazu badakizu. Primeran. Zeure burua non dagoen ere azkenean badakizu.



mungia

oKINdegia

Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da “ogi mungia”.

Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.


KASUNE 28 - T: 94 430 10 76

ALGORTA

[komikia]



HITZ GURUTZATUAK



LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin

1. Nahaste. 2. Joriak, emankorak. Iridioaren ikurra. 3. Hedabide bateko saioa. 4. Erroak, sustraiak. Berrogeita hamar. Boroaren ikurra. 5. Lehen pertsona. Eskomikua. 6. Azokako saltzaile. Bizkaieraz, bike. 7. Hidrogenoaren ikurra. Kontsonantea. Borroka mota. 8. Da, ingelesez. Bostehun. Ezagutzen dun. 9. Aulki bizkarduna. Erbioaren ikurra. 10. Talde baten izenean diharduen pertsona.

Goitik behera

1. Edonoizko. 2. Odon ..., euskaltzale arabarra. Sartu aditzaren oina. 3. Izpi luze, mehe eta malgu. Alkoholen bukaera. D bustia. 4. Aranondoaren fruituak. Du, haiei. 5. Apaizen jantziak. Arazo, bokalik gabe. 6. Zuberoako inauterietako karrika-dantzak eta ekitaldiak. 7. Frankismo ondoko karlisten siglak. Interjekzioa. Bokala. 8. Nitrogenoaren ikurra. Bilo. Ahuntzaren ar. 9. Esaten du. Ozar, lotsagabe. 10. Felix ..., idazle nafarra, erdaraz. Lehen bokala.

Soluzioak

V	I	R	V	K	Z	E	D	H	O
R	E	V	R	I	D	V	K		
N	I	K	V	D	D	S	I		
E	L	V	R	V	K	L	H		
I	U		I	R	V	K	O	Z	V
V	M	E	L	V	N	V	I	N	
B		L	K	V	N	I	V	Z	
V	O	I	V	S	L	V	H	I	
H	I		K	V	O	H	V	O	
U	D	N	E	S	M	H	V	A	N

asmatu eta irabazi > ARGIA astekariaren opariak



Nor da?

- Iruñeako alaba
- Teleberriak aurkezten egin zen ezagun
- Politikan erabat murgilduta dabil orain

> Aurrekoaren erantzuna: Eva Forest

> Irabazlea: **Aitor Bravo (Leioa) ***

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz

• *Argia* astekariaren hiru hilabeteko harpidetza doan



• *Freexkue* liburua



www.argia.com



JON GARAIZARREK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

“Plentzitarra” traineruaren bedeinkazioa 1987an

Datorren hilean, uztailaren 16an, hogei urte beteko dira Arkote arraun taldearen “Plentzitarra” trainerua bedeinkatu zutela, egun horretan hain zuzen ere, Karmengo jaia ospatzen da Plentzian. Argazkiko trainerua lehenago “Ondarruko Antiguako Ama” izan zen eta erosteko modu bitxia erabili zuten plentziarrek; pisuaren arabera erosi zuten: gramo bat = pezeta bat, kilogramo bat = mila pezeta...

Argazkian daudenak “Plentzitarra” ren lehenengo arraunlariak izan ziren. Hantxe jarri ziren bedeinkaziorako eta kitto, ez zen ez estropadarik ez beste ezer berezirik antolatu, bedeinkazioa baino ez. Ondoren, txosnara beharrera joan ziren guztiak, dirua behar zuten eta. Bestetik esan behar da, hiru barrikoztar kenduta, taldeko gainontzeko arraunlari guztiak plentziarrak zirela eta horietako bik ere oraindino gaur egun arraunean segitzean dutela: Raul Amundarain eta Juan Carlos Gernika “Mao”. ○

Ababorrean: Agustin Sanchez (aurrekoa), Raul Amundarain, Modesto Amundarain “Molty” (lehendakaria), Jose Juaristi “Manda”, Jon Garaizar, Josu Marin “Oso”, Joseba Bilbao, Mertxe Moreno (amabitxia), Juan Carlos Gernika “Mao” (patroia).

Istriborrean: Juan Carlos Moriano, Borja Amundarain “Itxis”, Martin Zabala “Palankas”, Jose Antonio Salor, Jon Ander Torre “Txato”, Jose Antonio Aburto “Artopi”.

A Arasa
Sukalde eta Komunetarako Ekipamendu Osoa
Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa



Sarrikobaso, 44 • 48990 Algorta
Tel/Fax: 94 430 11 91

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

*nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea, 78
T.: 94 491 27 34

AIORA ZULAIKA > Pirritx pailazoa

“Euskal Herria Euskal Iri bihurturik ikustea gustatuko litzaidake”

Testua: **Maitane Nerekan**



- Defini ezazu zeure burua berba bitan.**
Mari matraka ameslaria.
- Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?**
Little Miss Sunshine-go neskatoaren papera egitea gustatuko litzaidake. Bera izan ninteke txikitan.
- Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?**
Ezingo nuke bakarra aukeratu. Askotan, ezezagunek idatzitakoa da historia.
- Ohitura txarren bat al daukazu?**
Ez dakit ezetz esaten.
- Aitor dezakezun bizio bat.**
Coca-cola, txokolatea eta olibak, orden horretan.
- Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?**
Ipar Euskal Herrian zehar bidaiatuko nuke, oinez eta bizikletaz. Merezi du.
- Orain zarena izango ez bazina zertan gustatuko litzaizuke jardutea?**
Baserrian jardungo nuke gustura. Emakume baserritarra miresten dut.
- Zein da zure ametsetako bat?**
Euskal Herria, Euskal Iri bihurturik ikustea.
- Ikusi duzun azken filma?**
Parking, David Lillo zuzendari katalanaren lehenengoa. Asko gustatu zait.
- Zer gabe ezin zaitezke bizi?**
Gosaldu gabe.
- Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?**
Neronek egiten ditudanak. ○

LABURREAN— Orain dela sei urte Tolosan bizi den arren, Lasarte-Oriakoa da Aiora Zulaika. Arte Ederrak ikasi ditu eta pinturan espezializatua dago. Hala ere, Pirritx pailazoaren azalean jartzeagatik egin da ezagun. *40 Ordu euskaraz* ekimenean ezagutu zituen Porrotx eta Takolo taldekideak. 1998an hasi zen Takolo, Pirritx eta Porrotx taldearekin (orain Pirritx eta Porrotx baino ez) lan egiten. Ordutik, Riki-riki edo Patata-tortilla bezalako doinu eta dantza arrakastatsuak kaleratu dituzte. Lasarte-Oriako Gaztetxean jaso zuen Aiorak antzerki munduan sartzen lagundu zion formakuntza, gaur egun Mari Mototsen papera egiten duen Mertxe Rodriguezen eskutik. Bere burua, herri pailazo bezala definitzen du eta gauza txukun eta hezitzaileak plazaratzea garrantzitsua dela argi dauka.

BAPİKASI*

Euskara ikasteko udalekuak

Uztailak 2-13

HELBURUA: Bapikasi programa pilotu bat da. Bapikasiren helburua hauxe da: aisialdiko ekintzen bidez umeek euskara ikasi eta ondo pasatzea.

NORENTZAT: A eremuan ikasten ari diren **5-12 urte bitarteko** ume gehotarrentzat. **ORDUTEGIA:** 9.00-13.30. Irteerak egiten diren egunetan 17.30ak arte.

TOKIA: Santísima Trinidad ikastetxean, Algortan. **PREZIOA:** - Bizarra Lepoaneko bazkideek: **95€** - Ez-bazkideek: **120€** - Gurbieneko errenta jasotzen dutenak: **20€**

IZEN EMATEA: Ezin da telefonoz egin. Inskripzio orria bete behar da eta Osakidetzako txartelaren koplarekin eta Ingresoarekin ziurtagiriarekin batera bulegora ekarri: Karitatea 1, 10 bulegoa, Algorta. **E. K. 3035 0108 06 1081032766** **IZENA EMATEKO EPEAK:** Ekainaren 11tik 21era (biak barne)

Antolatzailea:

Laguntzailea: